

HIZKUNTZA, NAZIOA, ESTATUA

ezta
baida

Joxe Azurmendi

033

elkar

Bildumaren diseinua: Borja Goitia
Azaleko irudia: Gari Garaialde / Bostok Photo
Egilearen argazkia: Juantxo Egaña

© Joxe Azurmendi Otaegi
© Elkarlanean S.L. 2017

L.G. SS 30-2017
ISBN 978-84-9027-598-6

Elkar Argitaletxea
Portuetxe kalea, 88 bis
20018 Donostia
Tel. 943 31 02 67

liburuak@elkar.eus
www.elkarargitaletxea.eus

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein berregintza, komunikazio publiko edo moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke (Kode Penaleko 270 eta hurrengo artikulua). CEDRO erakundeak (www.cedro.org) babesten ditu aipatu eskubide horiek.

Sarrera bat egin behar omen dut. Zaila da, atzetik zer etorriko den jakin gabe, sarrera asmatzea. Egingo dudan planteamendua eta erabiliko dudan informazioa –erreferentziak, aipua, testuak– Lorea Agirreri zor dizkiot (eskerrik asko!).

Ezer berririk ez daukat esateko. Beti esan izan ditugun gauzatxoak pixka bat ordenan jartzen saiatuko naiz. Eta beti esan dudan legez, gure belaunaldiaren pentsamendua da gu-txi gorabehera agertuko dizuedana. Puntuotan ni neu Joseba Intxausti eta Jon Laskibarri, Txillardegiri eta beste lagun batzuei zordun naiz erabat. Gauza hauek, hala ere, belaunaldi bakoitzak beretzat birpentsatu eta bere birformulazioa bilatu beharra izaten du. Horretarako, erreferentzia eta irakurketa batzuetan bilatu ohi dugu laguntza. Gaur zuek beste autore eta liburu batzuk irakurtzen dituzue, zuen terminologia diferentea da: subalternitatea, hegemonia... Gure garaian guk irakurri ahal izan genituenak, batzuk eskolan (Viktor Cathrein, *Philosophia moralis*), klandestinoki beste batzuk (Landabururen *La causa del pueblo vasco*, esate baterako), oso bestelakoak zirela gogoratuz hasiko naiz, hortaz. Campion, geroago Arana Goiri, zatika gehienbat; José Martí, Fanon, A. Memmi; Lenin eta Stalin nazio arazoaz. Eta gure formazio garaiko irakurketekin hasiko dut hitzaldia, beharbada abiapuntu bat izan daitekeelakoan, zuek gurekiko egingo duzuen konfrontazioarentzat eta birgogoetarentzat.

Hiru partetan partituko dut interbentzioa: 1. Zein da nazioaren kontzeptu klasikoa, 2. Nola pentsatu gaur euskal nazioa, 3. Nola pentsatu euskal nazioaren etorkizuna. Hirurak ere niretzat galderak dira (2. eta 3. batik bat) eta zuek ere nire esanak hala ulertzea gustatuko litzaidake. Ez daukat soluzio definitiborik. Galderak argitzen eta denon artean irtenbide razional bat bilatzen saiatzea izan liteke gure xedea.

I.
NAZIOAREN KONTZEPTU
KLASIKOAZ

Iritzi hori anakronikotzat jo duten autore batzuen aurka, nik uste dut nazioaren kontzeptu klasiko bat badagoela, fenomeno nazionala aski ongi hauteman eta jaso duena.

Nazioak “betidanikoak” diren ala Aro Garaikidekoak diren, inportantea da? Ez dakit. Auzi akademiko soila nolanahi ere ez da, tesi politiko bat ostentzen duena baizik. Nazioak eta nazionalismoak XIX. mendeko fenomeno sozialak, konkretuki elite intelektual erromantikoen, edo industrializazioaren, edo trenbide eta komunikazio sare nazionalak hedatzearen emaitzak direla esaten bada, horiek ematen dira fenomeno historiko lehentiarantz, eta horien menpera erreduzitzen da nazioen funtsa. Eta zeharretara adierazten dena da nazio aferak atzokoak direla globalizazioaren gure aroan. Nazioak eta nazio arazoak, hortaz, iraganzale sentimentalentzat geratzen dira. Modernoa eta razionala unibertsalak izatea eta kosmopolitak sentitzea da. Niretzat, aldiz, ezbaigabea da XIX. eta XX. mendeetan nazioak eta nazionalismoak izugarritzko inportantzia izan dutela, baina ezerk ez du justifikatzen horien erreduktionismoa aipatu arrazoietara eta periodora. Arrazismoa ere XIX eta XX. mendeetan izugarri inportantea izan da, baina ezin da kapitalismora edo nazional-sozialismora bihur-murritzitu.

Nazioak egon eta nazioez mintzatu, antigualetik egiten da (T. Varro, “Europae loca multae incolunt nationes”, *De lingua latina* V, 32.4). Horien esanahi sozial eta politikoa

nola interpretatu da arazoa, eta esan gabe doa esanahi hori historian ez dela beti berdina izan. “Nazio” berbaren erabilera aspaldikoaz, Ernazimentuaz gero bereziki, diskusiorik ez dago. B. Etxeparek (1545, “berze nazione orok”) nahiz Leizarragak (1571, “berce natione gucien artean”) aski garbi adierazten dute Euskararen Herria –biek hizkuntzari zuzenean erreferentzia eginez hain zuzen– naziotzat daukatela eta garaikideek ere halakotzat daukatela. Lexiko ernazentistan, Euskal Herria izenak berak ez ote du Euskal Nazioa esan gura? Leizarragak Euskal Herria, Bearnoko herria, bertze nazioak, esaten du. (Konpara Bodin, etc., herri eta nazioaren sinonimiak Iraultzaraino bertaraino eta Sieyèsentzat ere oraindik balio izan du). – Hala ere, nazioaz jardun liteke: a) berba hori aipatu gabe: Lusitania, Italia, Galia esanez adibidez, zentzu guztiz nazionalistarekin askotan; edo, b) berba bera sorteri lokalarentzat erabiliz (Florentziako, Sienako nazioa), eta “aberriaren” nazionalista izanez (Italiarena, esaterako, Machiavelliren kasua den bezala) atzerritarren aurka. Nazioa eta nazionalismoa ez daude derrigor nazio hitzari josiak. Gaurko “ez-nazionalista” askoren nazionalismoa ikusi besterik ez dago.

Beste nahaspide bati aurea hartzeko, oraindik: herri/nazioaren subirania dela-eta, esan komuna da subiranotasun horren ezagupena Frantziako Iraultzarekin argitu omen dela historian. Honekin batzuek adierazi gura izaten dute nazio “kulturalak” lehenago ere agian egon direla, baina inolako esanahi edo balio politikorik ez zutela. Guztiz gezurra izan gabe, ez da guztizko egia. Bereiztea komeni da pentsatzearen eta obratzearen historiak, ez baitira beti batera ibiltzen. Pentsamendua aspaldi heldu zen pentsatzera gizaki guztiak Jainkoaren haurrak eta printzipioz denak berdinak direla (Je-

sus Nazaretekoa) eta ez omen dagoela esklabo eta librerik (Seneka, Paulo Tarsokoa). Baina esklaberia abolitzea zinetan egikaritu arte mendeak eta mendeak pasa beharko dute; eta beste menderen batzuk emakumeak ere berdinen artean zenbatzeko. Errealitatean obratzea mendeak kostako da, baina Zuzenbide Naturalaren eskolan –filosofia horri atxikitzen baitzaio Iraultza– Erdi Arotik beretik lehen printzipioetako bat da jendar-tearen oinarritzotasun politikoa edozein printze edo erregeren (edo Estaturen) aurretik. Andre-gizona bere izaeraz elkartasun edo gizarteko izakia da (Aristotelesen abere politikoa); eta, esate baterako Martin Azpilkuetak XVI. mendean jada irakatsi zuen legez, berori da gizartea egon dadin ezinbesteko guztiaren subjektu naturala, hots, “gobernatzeko, agintzeko, legeak ezartzeko eta epaitzeko” boterearen berezko subjektu. Hain zuzen, lehen-lehenik, gizabanakoon, banakoon elkar-tea baita gizartea (banakoa eta andre-gizonartea ez dira kontrajartzen, ezta banatzen ere, elkarren egiletzat hartzen baizik). Hala, bada, “gizartearen begiratzeko behar den boterea [boterea, alegia!] emana zaio gizaki bakoitzari zuzenean eta naturalki”. “Epaitzeko eta gobernatzeko boterea” gizadi edo gizajendearena da, jendar-tearena, nor bakoitzarena, ez Printzearena, ez Estatuarena. Eta, printzipioz, jendeak erabaki ahal izan beharko luke egiteko horiek nola berak antolatu. Horrela definitzen du Azpilkuetak botere zibil edo politikoa (“laikoa”): “Botere hau da Jainkoak zuzenean eta naturalki gizakien elkarteari emana, bere burua goberna dezan naturazko gaietan, zuzen eta zorionsu bizitzeko gisan, naturazko adimenaren arabera”. Istoriotxo bat ere kontatzen du, nola gizakien eta herrien auto/nomia pertsonal edo botere natural hori Estatuaren eskuetara etorri omen den: “Botere laikoa, naturazkoa baita,

molde naturalean, tipitik eta eskasetik abiaturik, erran daiteke aitzinatuko dela, etxe soiletik etxe multzora (...), eta gero, baratxe-baratxe, erdi mailakoetan haziz, hau da, gaztelu eta hirietan, iganen da goihen beteginera, erran nahi da, hiri askoren batasuna den Erreinura eta erreinu anitzen biltzarra den Inperiora. Eta hori bera digu irakasten munduaren historiak: mundua sortuz geroz, etxe bakarra da behin eraiki, ondotik beste etxe batzuk dira bereiz jarri; eta nola gizakia abere soziala edo lagunkina den eta biziak eskatzen dizkion baitezpadako guztiak ez dituen bere etxeko soilekin bereganatzen ahal, behar izan du, elkarretaturik hobeki bizitzeko, anitz etxe elkarretara bilduz herria sortu; gero herri askotako hiriek ongi elkaturik eta beregain jarririk hautatu dituzte beren eta herritarren kudeatzeko erregeak, deitzen baitira herri bereizien erreinuak. Baina erreinu tipi hauek handitu-eta, anitz erreinu tipirekin egin dira erreinu handiak eta orduan erreinu handi askorekin galdatu da Inperioa”. Doktore Nafarrak inork baino zio gehiago zeukan hori bila-kaera arras bortitza dela jakiteko, baina historia nare-nare baten modura, “prozesu naturalaren” eran alegia, deskribatzen du. Estatu edo erreinua eta horren boterea deribatua da, ez da hastapena, printzipioa. (Beste kontu bat da errealitatean boterea eta bortxa izatea gehienetan hastapena; edo hastapenean beti biolentzia egotea, eta berak funtzionatzea printzipio egiazki efikaz bezala: “errealitatearen printzipioa”, hots, bortxa gordinaren inposaketa, Estatu absolutizatzen duten filosofiek teoria bihurtua). Doktrina iusnaturalistan, erregea baino lehen erreinua dago, eta “erreinuak ez dira erregeentzat eginak, baina bai erregeak erreinuentzat”. Eta erreinua baino lehen herria dago: “ez da erreinua erregearena, baina herriarena, eta, natura legez, erregeren boterea herriarena

berarena da, ez erregerena; hainbesteraino non, herriak ez baitezake neholaz uko egin osoki botere hari”. Subiranoa, esan, erregeari esango zaio; baina izan, herria da (nazioa).

Aurre-oharrok eginik, eta gaian sartuz: Europa moderno bi iturritan edoskiz jaio eta hazi da kulturalki: bat judua (biblikoa), bestea grekoa; Atenas eta Jerusalem, laburbiltzen da (edo Atenas versus Jerusalem!). Nazioaren ideiak eta nazionalismoak ere bi iturri horiek dituztela errepikatu ohi da H. Kohn-*ez gero*. Israelgo nazio kontzeptua eta nazionalismoa (“herri hautatua”) herrialde protestanteetan izango litzateke moderniarene hastapenetan partikularki eragintua. Kontzeptu honetan nazioa, h. d., Israel, alboko beste nazioetatik komunitate erlijioso-kulturalki eta arrazialki (etnikoki) bereizia bezala ulertzen da. Erlijioa ezaugarri nazional erabakigarria da, baina ez da bakarra. Exodoaren herriarentzat lurraldeak, Yahvek propio berarentzat esleitua eta patriarken eta arbasoen lur suposatua, berebiziko balioa ditu. Hizkuntzak marka edo bereizgarri nazional bezala balio zuela xibolet/shibboleth pasadizoan ikusten da (Epaileak XII, 4-6). Memoria edo historia nazionalak, otoitz eta errituek, etab., nazio juduaren kohesioan, exilioetan bereziki, paper handia jokatu dute. Ik. S. Grosby, *Biblical Ideas of Nationality*, 2002. Israel modernoaz ez dago zer esanik. – Gaur, hala ere, Greziara mugatuko gara labur-labur (in puncto interesatuak E. E. Cohen, *The Athenian Nation*, 2000, ikus dezake luzekiago).

HERODOTOREKIN HASTEKO

Herodotorekin hasiko gara berriro. Bigarren Mediar Gerrakoan (480/479an K. a.), armada persiar erraldoiari aurre egiteko, hiri grekoak Liga batean elkartu ziren. Argosek ez zuen Itunean parte hartu gura izan, neutrala deklaratu zuen bere burua. Gero grekoek irabazi zuten, eta argostarrek, nolabait justifikatu behar herrikideekin gudukatu ordeztu alboratu geratu izana eta, arrazoi edo aitzakia hau ematen ei zuten, Herodotok kontatzen duenez. “Xerxesek, Heladeren aurkako kanpainari hasiera eman aurretik, heraldo bat bidali zuen Argosera eta honako hauxe esan omen zuen bertara iristean: «Argostarrok, Xerxes erregeak mezu hau igortzen dizue: gure ustez, aitatzat Perseo eta amatzat Andromeda dituen Persees da gure [persiarron] arbasoa. Horren arabera, zuen ondorengoak ginateteke eta, beraz, ez da arrazoizkoa gu geure arbasoen kontra gerrara joatea, ezta zuek ere, beste batzuei laguntzarren, gure etsai bilakatzea. Zuek neutral mantentzea da arrazoizkoena»” (VII, 150). Hiri grekoek euren has-tapenen mitoak zituzten, eta Argos/Mizenako errege mitiko bat Perseo izan zela kontatzen zen.

Guretzat interesgarria ez da arrazoiaren egia, arrazoiaren modua baizik. Esan gura baitu, argostarrak grekoen herriki-

deak zirela, baina nolabait persiarren ahaideak ere bai non-bait. Eta –azpiulertzen da– errege persiarrak Heladeri erasotzen bazion, bidezkoa herrikideekin batera gudura joatea zela. Baina, bestetik, persiarrak beren odolekoak baldin baziren, ahaideen aurka gerran aritzea ere ez zela egokia. Beraz, familiako gatazketan neutralak gelditzea zela txukunena.

Herodoto, bere historiak idazteko, hara eta hona ibili da mundurik hara, eta arrazoi hori argostarren euren ahotik jaso du jaso, eta halaxe idatzi du. Bitxia zera da: ez duela ematen kontu hori berak asko sinesten zuenik. Kontu sinesgaitzik bada, halako hamaikatxo jaso du bere liburuan, baina, nahiko harrigarriro, hemen bere sinesgabetasuna espresuki ohartarazten du. “Dena dela, ezin dut baieztatu ziurtasun osoz Xerxesek Argosera heraldorik bidali zuen halako mezuarekin (...). Nik, batzuek eta besteek kontatzen dutena azaldu beharra badaukat ere, horrek ez du esan nahi hori guztiori hitzez hitz sinetsi beharra daukadanik (...), zeren bada esaten duenik argostarrak eurak izan zirela, izatez, Persiarrarengana laguntza eske jo zutenak Heladeri eraso ziezaioren; izan ere, lazedemondarren eskutik jasandako hondamendia jasan ondoren, edozertarako prest zeudekeen egoera hura gainditzearren” (VII, 152).

Argos, Iliadako hainbat heroiren sorterrria, Heladeko hiririk antzinakoena kontsideratzen zen. Pelasgoa berez (migratio grekoak baino lehenagokoa), baina gero immigratzaile heleniarrek azpian hartu eta heleniartua, Peloponeso guztia legez. Aurreko urteetan Argosek eta Espartak egundoko gatazkak ibiliak zituzten bata bestearekin, azkenean Esparta gogorrek abarrikatua utzi zuelarik Argos aberatsa. Erraz ulertzen da orain gogorik batere ez bazuen Espartaren aliatu bihurtzeko, batez ere buruzagi espartarren esanetara jartze-

ko, ausiabarraren ostean geratu zitzaizkion bere gudamutilen hondarrak. Antzinako Grezian munduko arruntena zen hiriak eta herriak euren artean gerran ibiltzea, denak nazio heleniar bereko haurrideak zirela zekiten arren. Baina horietako bati beste jatorri edo nazioen bateko hirugarren batek erasotzen bazion, heleniarrek elkar hartu behar zuten, eta justifikazina irizten zioten jatorri heleniarreko inork anai-arreben aurka “barbaroarekin” bat egiteari (nahiz eta hori ere behin baino gehiago ikusi den). Argostarrek ez dute beste hiri grekoekin aliatu gura izan. Alabaina, praktikan logika nazional horretatik kanpora jokatu duten arren, diskurtsoan logika hori –kontzientzia nazional hori– ez bakarrik ez da kuestionatzen, ezpada berretsi egiten da, euren aitzakia edo justifikazioa logika horrexen barruan argudiatuz.

Nazioaren kontzeptua gaur egun modu askotan da ekibokoa edo nahasia. Hein batean, historiak edozein kontzepturen esangura aldarazi ohi duelako; eta, hein are handiagoan, Estatu moderno batzuen aldetik interes handiak daukelako ekiboko izan dadin. Estatuon interesei amore emanez azken batean (“errealitateari” jaramon egitea dela esango dizute), teoriko eta ikertzaile zenbaitek, Estatu-Nazioaren mesedetan, nazioa eta etnia bereizten dituzte, edo nazio politikoa eta kulturala kontrajartzen dizkizute, etc. Nazio kulturalaren eta politikoaren oposizioa neuri total engainagarria eta arriskutsua iruditzen zait, kulturaren eta politikaren oposizioa iradokitzen baitu. Renanentzat balio lezake agian, badakigu zein interesengatik: Alsazia nazio kultural alemana litzateke, nazio politiko frantsesa. Edonola ere, Renan bera –1882ko Konferentzian– ez da terminologia horretaz inoiz baliatu: Alsaziari erreferitzeko beti artoski saihestu du nazio berba. Nazio tipoen bereizketa “frantses” dudagarri horren

aldekoek euren alde Meinecke lekuko gisa aipatzea, zenbait tek egin ohi duenez, ulertzen da autore frantsesa salbatzeko autoritate aleman bat alegatzeko trikimailutxo gisa, baina lekuko faltsua hautatzea da. Bereizketa terminologiko horrekin Meinecke periodoen diferentziari prozesu historikoan erreferitzen baitzaio, ez kontzeptuen edo nazio tipoen oposizioari. Nazio kultural alemana –hizkuntza– Danimarkatik Tirolera eta Baltikotik Alsaziaraino hedatzen zen (Austria eta Suitza barne), politikoki arras zatikatua, Estatu alemanik ez zegoen; “nazio politiko” alemana sortu denean, Estatua haren zati bat baizik ez da (orain Errepublika Federal Alemana deritzona). Orain nazio aleman kulturala eta nazio aleman politikoa, h. d., nazio alemana eta Estatu alemana, biak daude tenore berean, baina biak errealitate diferenteak dira.

NAZIO KLASIKOA ZERTAN DATZAN

Nazioaren kontzeptu tradizionala, klasikoa, gero mendeetan jarraituko duena, Herodotoren baitan irakurtzen ahal dugu jada Atenastarrek mandatari espartarrei emandako erantzunean, berak zergatik dauden prest herrikide heleniarrekin batera persiarren aurka gerrara joateko arrazoia ematean: “(...) hortxe da heleniar guztion kidetasuna arrazaz eta hizkuntzaz, hortxe amankomunean ditugun santutegiak eta jainkoei sakrifizioak, baita antzeko usadio eta ohiturak ere” (VIII, 144).

Horretan datza heleniar guztiek elkar hartzeko eta barba-roekin ez bat egiteko arrazoi nagusia. Hau da: 1. “arraza” eta hizkuntza komuna (arraza eta hizkuntza jeneralean berdindu edo batu egiten dira: hizkuntza berdinak arrazaren berdintasuna erakusten du); 2. kultura berdina (erlijioa); 3. usadioak (tradizioak eskubide edo lege bihurturiko jokamoldeak), eta 4. ekandu edo ohitura berak. Nahi baduzu, nazioaren kontzeptu hori “kulturala” da, esan ohi den legez esateko. Baina kontzeptu “politikoa” da orobat, are politiko-militarra (abertzalea), testuinguruan garbi dagoenez: Atenasko hiriaren interes partikularren gainetik solidaritate nazionala dago, atenastarrak gertu egoteraino atzeritarren aurka haurride gre-

koen defentsan ondasunak galtzeko eta bizia bera emateko. Perspektibaren diferentzia bai, baina ez dago nazio kulturalaren eta politikoaren oposiziorik; ez dago politikoa ez den nazio kulturalik. Nazio kulturala beti da nolabait politikoa, eta kasu batzuetan larriki politiko bilakatzen da.

Nazio grekoa senitarte grekoa da; nazionalitatea haurritetasuna da, haurrideak kulturalki bezala politikoki lotzen dituen tasuna.

A) KOMUNITATE LINGUISTIKOA

Ezertan bai eta, grekoek beren berdintasuna eta diferentzia arraziala, beren familia batasuna, hizkuntzan ikusten zuten, eta haientzat hizkuntzak definitzen zuen “arraza”.

Zuen lizentziaz, parentesi batetik bueltan berrartuko dut haria. Basko batzuk, ez bakarrik mundurik hara ibiliagoak edo bazterretan aipatuagoak, ezpada unibertsalak direla esaten da. Eusko Jaurlaritzarentzat ere basko batzuk, besteok ez bezala, unibertsalak dira eta horregatik sari baten merezigarriak. Gure arteko erabileran berbak ulertzen diren bezala, unibertsalak mundua ezagutzen duena edo munduan barrena influentzia omen duena esan gura lezake, edota berein alokoretan jantzia (“jakintsu unibertsala”), irekia, kosmopolita, tolerantia. Bi erabilerak nahastu egiten dira. Unibertsalaren kontrariotzat buruestua, mugatua, lokala, partikularista, aldeanoa ulertzen da. Mintzamolde hori nahiko topikoa da, baina niretzat harrigarria Eusko Jaurlaritzak berak beretzeari. Izan ere, terminologia horretan ezkututzen den tranpa nahiko sinplea da: euskaltzale bat sekula ezingo da unibertsala izan, baina euskara baztertu izatea kasik ezinbesteko baldintza bihurtzen da basko unibertsala izateko. Diskurtso

molde hori zeini interesatzen zaion eta hedabide nagusiek zergatik nagusiarazi duten bistan dago. Horrekin automatizatua geratzen baita Unamuno eta Baroja basko unibertsalak direla, baina Arana Goiri edo Azkue ez. Eta, azken batean, PSE unibertsala dela eta EAJ aldeanoa. Zerk egiten du, alabaina, gutako edozein unibertsal? Pertsona izateak, ez bestek. Partikular egiten gaituen gauza berak. Borroka abertzalea, euskararen defentsa, izan liteke partikularista eta aldeanoa (“erromantikoa”, edo arrazista, etab.), baina, pertsonaren aldeko defentsa eta borroka bada, unibertsala da. Pertsonez dihardugula, singular edo partikularra eta unibertsala kontrajartzeak ez du zentzurik. *Stricto sensu*, ezin da egon pertsona unibertsalago eta gutxiago unibertsalik. Pertsona ororen eskubide unibertsalen deklarazioak ez du horixe beste oinarriarik. Eta nola egiten gara pertsona, eta pertsona gisa bai singular (partikular) eta bai unibertsal, biak batera?

Pentsa dezagun norbait bere osoan: Maria. 1. Bere ize-narekin, bere sexu, aiurri, oroipen, asmo partikularrekin, hots, norbanako gisa (singularra), bakarra da eta bakarra dago munduan. Ez egon da eta ez egongo da inoiz beste bat halakoxea. Baina izan, zer da? 2. Gizaki den bezainbatean, munduko beste edozein gizaki bezalakoxea da: gizakiaren karakteristika guztiak dauzka eta ez dauka edozein gizaki-rena ez den ezaugarriarik. Hortaz, batetik bera da, bestetik gizaki oro da; haren existentzia (singularra) espezie guztia-ren existentzia da (orokorra). Biok batera pentsatuz bakarrik pentsatzen dugu zein (Maria) zer den (emaztekoa da), singular eta unibertsala batera. 3. Bateko norbanako singularra besteko orokorrarekin lotzeko lokarria komunitateak egiten du. H. d., Mariaren singularitasuna gauzatzen duten ezaugarriak (berez giza espezie guztia-renak, esan bezala)

ez dira ematen modu abstraktuan (bizidun sexuatua izatea, mintzoduna, etab.), komunitate partikular baten ezaugarrien era konkretuan baizik: grekoz mintzo da, peploa janzten du, mitologia bati atxikitzen zaio, halako ohiturak ditu, etc. Hezur eta haragizko norbanakoa orokortasunean (esentzian) txertatzeko bitartekoa egiten duena komunitatea da. Ezin da norbanako izan komunitaterik gabe; munduan eman, komunitate bateko ezaugarriekin ematen da beti norbanakoa. Ordea, komunitatea (beraz, norbanakoa) ezagutaraz lezaketen ezaugarriak, baiespen nahiz ezespenezkoak, printzipioz zenbaezinak dira. Grekoa defini genezake, esate baterako, esklabo izateko jaioa ez dena legez, edo mito eta teatrozalea legez, edo ipuin-asmatzaile handinahi gezurtia legez (“Graecia mendax”); edo grekoz mintzo dena legez besterik gabe. Grekotasunaren azken esentziarik ez dago eta, testuinguruaren arabera, ezaugarri akzidentalago edo substantzialagoak nabarmen litezke hura ezagutarazteko. Euskaldunen janzkera Humboldti bere garaian bereizgarri nazional interesgarria iruditu zitzaion; “kilt” gonamotza eskoziarren ezaugarritzat hartu ohi dugu. Nolanahi ere, jantziak eta (edo janariak, dantzak – zezenketak!), nolabait nazionalak izan arren, oso nabarmengarriak ez zaizkigu begitantzen komunitate bat definitzeko (nazio bat). Ezaugarri esentzial moduko zerbait baldin badago komunitatearen bereizgarria, hizkuntza izaten da hori. Hau ez da Krutwig eta Txillardegiren inbentua. Hala ulertu dizute grekoek berek (gizaki orokorraren espezifikoa ere “λόγος ἕξον” –abere mintzoduna– izatean zetzan moduan).

Immigrazio heleniarren uhinek Greziara iristean, bertan aurkitu duten populazioa pelasgoa zen. “Pelasgiarrak hizkuntza barbaroan mintzatzen ziren”, dio Herodotok; seguruenik

preindoeuroparra, euskara bezala. Kasu batzuetan inbaditzaileek eskualdeko populazio pelasgoak menperatu eta esklabotatu egin zituzten. Beste batzuetan itsasoaz bestaldera iraitzi, Lemnos irlara-eta. Baina, Atikan adibidez, etorkinak eta autoktonoak bakean elkarbizitzera moldatu dira, etorkinen, ez kultura, baina botere garaia goa denborarekin nagusituz joan delarik. H. d., batetik armatuak etorri diren heleniarrek, lurra eta itsasoa lantzen zituzten pelasgoen hainbat mito, kultu, kontzeptu, toponimo bereganatu dituzte, baina bestetik pelasgoak linguistikoki heleniartuz joan dira, bi herriek bat eginez. Herodotoren hitzetan, “Atikako etnos edo jendea [herria – “nation” P. H. Larcherren itzulpen frantsesean], pelasgiarra izanik [“to Attikón ethnos eón Pelasgikón”], heleniartzearekin batera hizkuntzaz aldatu zen” (I, 57). Atika, hortaz, hizkuntza aldatuz, nazio pelasgoa izatetik nazio heleniarra izatera pasatu da. Eta Atenastarrek grekorik grekoenak usteko dituzte euren buruak: ez inondik etorriak, baizik bertoko lurretik hozituak. Mito polit bat ere bazeukaten, ohi zen moduan, zelan Erekteo euren aitalehena Gea edo Lurretik jaio zen, eta Akropolian hari eskainitako tenplutxo liraina ikus dezakegu. H. d., atenastarrak, Grezia guztiko “arraza” grekoena, ez ziren arraza grekoa...

Ez da kasu bakarra izan. Herodoto irakurtzen jarraituz: “Heleniar herriak [jendeak: “to hellenikón” – Larcher: heleniar nazioak; Macaulay: arrazak], niretzat nabaria denez, sortu zenez geroztik hizkuntza bera erabili du. Baina pelasgiarrengandik bereziaz zegoenean ahul bazen ere, urritasunezko hasieratik abiatuz, batik bat pelasgiarrak eta gainerako herri arrotz asko atxiki zaizkionean, herri-multzo [handia] izateraino galdu da” (I, 58).

“Melting pot” bat da, hortaz, “odol” edo nazio grekoa, munduan diren eta beti izan diren nazio guztiak bezalaxe (euskaldunok barne): hainbat jatorri ezberdinetako jendea hizkuntza eta kultura grekoan elkarbatuz osatu da. (Ik., orobat, Tuzidides I, 3: grekera “ulertzen” zuten tribu eta hiri ezberdinak elkartuz joan ahala gorpuztu dela nazio heleniarrak). Hizkuntzan elkarbaturik, “odol-bereko” bilakatu dira denak. Familia bat (euskaraz ere odolak askotan familia esan gura izaten du). Familia bat izaki, Jainko eta kultu berak dituzte, lege berak, ohitura berak.

[Parentesi bat: era berorretantxe esplikatzen du Dionisio Halikarnasokoak –*Antiquitates Romanae*, 1.89.4-90, 1– Erromaren sorrera: naziorik ezberdinenetatik (Sabinen Bahiketa gomuta dezakezue, pintore eta eskultore pilaren gai kutuna denez) eta berezi-bereziki Greziatik immigratuen metatzeak bildu ei du Hiria. Nazio haiek ezagutarazteko kriterio gisa “hizkuntza eta ohiturak” ematen du orokorki. Nazio grekoaren nortasuna zehatzago bereiztekotan, Herodotoren antz-antzera (beharbada hari jarraituz), Dionisiok ere hizkuntza, ohiturak, Jainkoak, zuzenezko legeak, barbaroen arauetatik hagitzez bestelakoak, eta eguneroko biziera arrunteko azi-orraziak aipatzen ditu].

Nazioaren kontzeptu klasikoa hori da.

B) KOMUNITATE NATURALA

Polis greko diferenteak daude, baina nazio greko bakarra. Polisa (Estatua) artifiziala da. Polisa eta nazioa, artifiziala eta naturala bezala bereizten dira.

(Natura eta kultura bata besteari kontrajarriak bezala ulertzen dituenak, kultura naturaren gaindipentzat hartuz,

Polis edo Estatuan nazioaren uko eta gaindipena ikusiko du. Natura eta kultura bata bestearen jarraipen eta are egile bezala ulertzen dituenak, Estatua eta nazioa ez ditu kontra-jarriko, elkarren osagarritzat hartuko baizik, eta Estatuak/artifizioak errespetatu egin behar duela Natura/nazioa pentsatuko du).

Euskarazko itzulpenean “arraza” berdintasuna irakurtzen dugunak, “hómaimos” [homo-aimos], hitzez hitz hartuta “odol-bereketasuna” esan nahi du. XIX. mendean arrazarekin itzuli izan da (G. C. Macaulayren itzulpen ingelesean, adibidez.), gaur beste berba batzuk hobetsi ohi dira, euskarazkoak ez dakit zergatik arraza hautatu duen. Edonola ere, adiera grekoan ulertu behar dugu. Tradizio zaharrea arrazak (odolak bezala) leinua, familia adierazten du (arraza –dinastia– merovingiarra, kapetotarra, etab.). “Hómaimos” grekoak ahaidetasuna, arbaso berdinegandiko etorkia, erremarkatzen du; hots, elkartasuna ez dela “politikoa” (akordio batean hitzartua), ez dela batasun poetiko ideal bat, kidetasun erreal nabarigarria dela. Heleniartasun komunaren oinarri naturala enfatizatzen du, izaera grekoaren diferentzia fisikoa beste herriekiko (“physis”aren zentzuan). Hori hizkuntzarekin batera aipatzen dela ohartuko du irakurleak, eta horrela arrazak eta hizkuntzak elkarren esanahia esplikatzeko dutela.

Polis grekoen arteko diferentzia politikoen gainetik, grekoen eta ez-grekoen arteko diferentzia “naturala” ebidentzia bat zen nonbait garaiko grekoentzat. Izkribu hipokratikoe-tako “Antzinako medikuntzaz” traktatuan, gaixotasunen diagnosi eta tratamendurako giza naturaren (“physis”) eza-gutza doia garrantzia azpimarratzen diharduela, segurantziaz handienarekin baiesten da grekoak eta asiarrak gor-

putzez nahiz aiurritz zeharo diferenteak direla. Ezaguna da Aristotelesen esklabotzako doktrinaren oinarrian uste horixe dagoela: Heladek haur libreak sortzen ditu, greko bat esklabo egotea naturaren kontrarioa da (ez da autokontzientzia nazional eskasa!). Aldiz, beste lurralde guztiek, arrazoi klimatiko-geografikoengatik omen, gizaki esklaboak sortzeko predeterminatuak dirudite. Jende hura, bere naturaz, ez da gauza bere burua gobernatzeko, tiranoek gobernatua ibili behar du, eta esklabo izatea haren naturaren egokierakoa da (*Pol.* 1252 b, 1285 a 19-24, 1327 b 20, etab.). Uste honen arruntasun horregatixe enpeinatu behar izan du Antifonek bere herrikideei kontrarioa ikusarazten, greko eta barbaroen berdintasun natural guztizkoaren frogatzat haien beharrian naturalen (edo eginkarien) berdintasunarekin argudiatuz.

Arrazismo edo protoarrazismo grekoaren eztabaida alboan lagata, ohargarriki guretzat, grekoek bai baitzekiten beraiek “arraza” edo herri diferenteen nahasketaren emaitza zirela, mestizoak zirela, esan gura du arrazarekin ez zutela Europan XIX eta XX. mendeetan ulertu dena ulertzen (izae-ra biologikoa), ez zutela arraza garbian-edo pentsatzen, ezpada odol-berekotasuna azpimarratuz erkidego edo komunitate sentimenduaren sendoa eta gotorra nabarmentzen zutela. Familia grekoa; grekoen arteko elkartasunaren ben-benaz berezkoa, naturazkoa.

Komunitatea, funtsean, solidaritate bat da, besterik ez. Eraspena “familiar” eta sorlekuari (primatearen territoria), tradizioei, historiari, etab. *Lurraren konkista soziala* E. O. Wilsonen liburu arrakastatsu bat da, gizakiaren eta giza-diaren bilakaeraz. Itzulpen frantsesari aitzin-solas bat bere posizioaren laburbilduma gisa apailatu baitio, hor irakurtzen dugu: gizaberearen dohain naturala da, estreina “l’ob-

session de l'individu à s'intéresser aux autres, et ce dès les premiers jours de la vie". Eta horrekin bat eginez: "Une seconde particularité héréditaire propre au comportement de l'homme est son besoin instinctif et irrépessible d'appartenir d'emblée à des groupes. L'appartenance d'une personne à son groupe – à sa tribu – constitue une part importante de son identité (...). Les gens préfèrent être avec des personnes qui leur ressemblent, parlent le même dialecte et ont les mêmes croyances".

(Nazioaren inguruan terminologia bera kakanahastua geratzen da beti berehalaxe: nazio, Estatu/Nazio, etnia, nazio zibiko/etniko, etc., eta hala orainago komunitate/komunitario ere, Frantzian batik bat eta Frantziatik kopiatzen jarraitzen duten intelektual espainol eta euskaldunetan. Komunitarismoa, egungo filosofian, korronte iparramerikar interesgarri bat da. Komunitatearen errebindikazioa egiten dizu, minorien aldeko diskurtsoa barne. Liberalismo individualistaren eta kapitalismo amerikarraren kritikoa, demokrata eta nolabait ezkertiarra da USAn –betiere USAko parametroetan–, sozialismoaren antzeraino. Frantzian, aitzitik, komunitarismoa aipatzen bada, etnizismo, islam, tribalismoarekin asoziatuz egiten da ia beti eta, P.-A. Taguieffek dioen moduan, izenak "un opérateur d'illégimitation" bezala funtzionatzen du. Ez dut ulertzen, entzuten diot deklaritzen R. D. Prechti, zergatik frantsesek kontzeptu arrakastatsu bat Ipar Amerikatik hartu eta gero faltseatu egiten duten, hark berez balio duenaren eta adierazi gura duenaren kontrariorako erabiliz. Pentsatzen dut oso ondo dakiela jakin zergatik, baina filosofo alemanari jendetasunak debekatu egiten diola intelektual frantses askoren itsumen nazional-jakobinoa bere izezez aipatzea. Izan ere, Frantziako zenbait ezkertiarrek XIX.

mendeko ezkerria eta XXI.eko eskuina ematen dute honez-
kero. Ariketatxo bat egin gogo baduzue, irakur eta konpara
Wikipedian “Communitarianism” ingelesez, “communautarisme”
frantsesez, “Kommunitarismus” alemanez. Italianoz ere interesantea da. Interesatuak ikus lezake A. Etzioni, *La
tercera via hacia una buena sociedad. Propuestas desde el comunitarismo*, 2001).

NAZIOA BETI PLURALA DA ETA BILAKAERAN DAGO

Zenbait espainolistak abertzale edo nazionalistei leporatzen dien akatsetako bat Euskal Herriaren pluralismoa ez errekonozitzea da. Egia esan, erridikulu samarra dirudi, abertzaleak berak aski pluralak baitira egunero elkarrekin mokoka ibiltzeko. Gurean pluraltasuna bistakoegia da eta arazoa ez dago hori errekonozitzean. Pluraltasunak forma konfliktibo eramangaitzak hartu dituelakoxe piztu da historikoki nazionalismo politikoa, eta gaur bertan abertzaleak erenegatzen dituen Estatuen politika inositibo uniformista da, Konstituziotik hasi eta Estatutua oraindik konplitu gabe egoteraino, hor ez baitago Euskal Herriko bezala Espainiako pluraltasun zinezkoaren mespretxu sistematikoa baizik. Pluraltasunak konfliktua eragitean datza arazoa.

Honek ez liguke, hala ere, nazioaren pluraltasunari positiboki so egitea eragotzi behar.

Hizkuntza bera plurala eta higikorra da bere baitan; asko dira hizkuntzazko espresioak, eta askotarikoak. Hainbat hitz greko pelasgoa da (“thalassa”, etc.). Mito eta kultuetan hamaika aztarna pelasgo kausitzen da. Herodoto irakurritz, kontakizun erlijioso grekoetan dagoen aniztasuna miresten dugu, Zeusen edo Apoloren ideia eta gurtza txundigarriai-

no diferenteak, jatorri pelasgo eta heleniarreko hazpegikoak nahas-mahas (Iliadan bertan “Dodonako Zeus pelasgoa” aipatzen da). Grekoak hainbat herri diferenterekin batu dira, bai Helade okupatzeko migrazioetan, bai gero kolonietan, eta denetatik hartu dute euren kulturarako. Estrabonek berriematen du, Kataluniako Empuries/Emporionen, hasiera batean biztanle grekoak eta indigenak aparte jarri zirela, hiriaren erditik pasatzen zen horma batek banatzen zituela. Gero, horma kendu eta hiria jende eta ohitura barbaro eta heleniarren nahas-mahasa bilakatu zela – “beste toki askotan legez”, dio. Zirenaikan kolono heleniarrez eta bertoko andreez osatu ziren familiak, baina –irakurtzen diogu Herodotori– “zyrenetarren emakumeek Egiptoko Isisengatik ez dute bidezko jotzen behikia jatea; are gehiago, baraualdiak eta jaialdiak egiten dizkiote; bestalde, barkatarren [Barka kolonia heleniarreko] emakumeek behikiez gainera zerrikirik ere ez dute dastatzen” (IV, 186). Parte bakoitzak bere tradizio eta ohiturei eusten zien. Luze gabe, kultura mestizatuko komunitate heleniarrak bilakatuko ziren.

Gure garaian, euskaldun batek Alvarez edo Villasante deitura bazuen, zenbait jendek kuestionatu edo ukatu egingen zion euskaldun jatorra edo oso-osoa izatea, hura Arana Goiriren kritikoa baldin bazen batez ere. (Beti susmatu izan dut, Alvarezen lekuan Petersen edo Smith deitu balitz eta katoliko zintzoa izan, haren euskalduntasunak problemarik ez zuela sortuko. Bide batez: Jimenez, Martinez, Ruiz, Fernandez, Perez, euskarazkoak ez dira izango –“euskérico”ak–, baina zein burutan sortu da euskal herritar jator-jatorrak ez direlako? Aparte euskal abizen jatorren paranoia aspaldi ahaztua uste nuela). Begiratzen badugu euskalduna zer den, euskarazko hainbat hitzen eta esaeraren jatorria zelta, lati-

na, germaniarra, arabiarra da, gaztelaniazkoa eta franko edo kaskoia ahaztu gabe. (Gutako edozeinek herri horiek denak eta besteren batzuk zenbatu behar ditu bere arbasoen zerrendan, hamasei “euskal abizen” garbi baditu ere). Euskal mitologian, hain geure-geuretzat eta antzinakotzat daukaguna, osagarri zeltak edo mediterranearrak eta latinoak ez dira gutxi. Euskal Herria oso kristaua da (fedea galdu eta gero are gehiago, antza), eta kristautasuna ez da, noski, euskal asma-zio jatorra. Bidezkoa da. Nazioaren originaltasuna ez baitatza bakar-bakarturik eta bere esentzian “garbi” bizirautean, harreman ugarienetatik elikatzean eta aberastean baizik. Hala jendeetan ere. Euskal “arraza”, Europako migrazio guztien bide-bidean, inork ez dakien zenbat “arrazaren” oreka baizik ez da, munduko aborigenik aborigenenak bezalaxe bestalde.

Nor eta zer garen edo identitate pertsonalaren autokontzientzia, ez da horretara mugatzen, baina bere elementu edo espresio sinpleenera laburtuz, jaiotzarekin esaten dugu: ni, halako eta halakoren haurra; halako etxetan edo hiritan jaioa; ni giputza, nafarra... Nazioak jaiotzarekin du zerikusia (*nascor/natus, natio*), eta harekin asoziatzen dugunarekin. Antzinate grekoan askazi leinargi batzuk heroiengandiko edo are jainkoengandiko jatorriaz harrotzen ziren. Baziren jatorri pelasgoaz ilarraintzen zirenak ere. Leinuen gainetik, hiriek (Argos, Atenas), tribuek (ioniarra, doriarra), bakoitzak bere fundazioaren mitoak zituzten. Baina, gainera, nazio greko guztiaren fundazioaren ipuina zeukaten: Heleno ize-neko errege bat ei zen heleniar guztien arbasoa, Deukalion eta Pyrraren semea (Tuzidides I, 3, 2). Erromak orobat bere fundazioaren mito ezberdinak zeuzkan (Romulo eta Remorena, etab.), horietako bat Troiakoko sutetik ihesi etorritako Eneasena zen, Virgilioren eposiako. Virgilioren golda-

tzean, Erdi Aroan hainbat fundatzaile mitiko emanarazi zaio Troiari: Bruto, britonen (ingelesen) aitalehena; Francion, frankoena, etab. Lisboa Ulises herratuak fundatua litzateke, etc. Hiri eta nazioen fundatzaileen beste iturria Biblia izan da: Tubal, etab. Eskuarki jatorrien kontakizunon xedea nazioaren antzinatea eta nobletasuna erremarkatzea izaten zen. Handikeria nazionala. Nazioa, jatorriaren antzinatea, odol garbitasun edo noblezia, elkarri lotzen dira. Handik hara aristokrazia frantsesak berarentzat monopolizatuko du “Nazio” titulua (“le Roi et la Nation”). Gero, handikeriari buelta emanez, iraultzaileek Nazio titulu aristokratikoa nobleziari kendu eta herri frantsesari eman diote (“herri” frantses hori burgesia baino ez zen, egiaz; eta laster “la Grande Nation” izendatuko du bere burua). – Diferentziatxo bat, ohargarria: jatorri mitoon funtzioa ez da beti eta edonon bera. (Tutik ulertu ez duen seinale da norbaitek, burlatzeko, ipuinon esanahia eta balioa XVI. mendean eta XIX edo XX. mendean ez bereiztea). XIX. mendeko Aitorren euskal ipuinean, ordurako euskal gizarte tradizionala Estatu modernoan erasotzea krisi larrian sartua dago iparraldean nahiz hegoaldean, eta elezahar berriaren xede nabarmena (Aitorrek zazpi seme ditu, etab.) zazpi probintzien eta Euskal Herri osoaren batasunarena da.

Nazioa modu askotan da beti plurala eta bata.

II.

NOLA PENTSATU
GAUR EUSKAL NAZIOA

Dena den, interesatzen zitzaiguna ez zen nazioaren definizioa: nazio klasiko normala zer den ikusi ere, nazioaren egoera edo izaera ez normala zer den hobeto ikusteko ikusi dugu, hau baita gure kasua. (Ez diezaiogun esijitu nazio apurtuari nazio osoaren kontzeptua hitzez hitz konplitzea).

Nazioaz eta hizkuntzaz mintzatzerakoan iluntasun batzuk edo gehiegikeria batzuk hobe da ekidin. 1. Hizkuntza eta “arrazaren” lotura aipatu dugu grekoentzat, baina Renanek eta Unamunok erabili izan duten “arraza linguistiko”aren kontzeptua, Frantzia eta Espainiako errealitatea salbatzeko beren intentzio patriotikoa gorabehera, kontzeptualki ergelkeria hutsa da. “Arraza” itzultzen den berba grekoarekin izan lezake zentzuren bat, absurdoa da arrazaren kontzeptu modernoarekin. 2. Hizkuntza ez da nazioa, nazioa ez da hizkuntza (bakarrik). 3. “Hizkuntza bat nazio bat”, egia erlatibo gehien-gehienbat zuzena da, baina ez da absolutua: hor daude juduen edo romani eta sintien kasuak (nazio bat, hizkuntza anitz), edo ingelesaren, espainolaren kasuak (hizkuntza bat, nazio asko). 4. Nazioa eta hizkuntza aipatzen denean, hizkuntzarekin hitzunen komunitatea ulertzen da. Komunitate bat askoz gehiago da bere hizkuntza(k) baino.

Bestaldera, bereizketa batzuk gogoan ukaitea komeni da praxiari begira. Bi galdera zeharo diferentea da: 1. Euskadi-

ren independentzia nahi duzu?, eta 2. Euskararen hedapena Euskadi osoan nahi duzu? Horrekin loturik: 1. Nola jokatu independentziaren alde?, 2. Nola jokatu euskara hedatzeko? Esate baterako, burujabetasunaren alde armak erabil litezke; jendeak euskara estimatu eta ikasteko, ez. Armak utzi eta gero: nola arrazoitu independentziaren alde eta nola arrazoitu ez abertzaleari euskararen alde (biak ere modu oso diferente-tan egin litezkeela ahaztu gabe). Batek independentzia gura lezake eta euskara bost axola, besteak alderantziz. Edo batek lehenbizi independentzia, gero euskararen hedapena, edo viceversa. Modu batera pentsatuko da independentziaren aldeko estrategia, beste batera euskara zabalduz joatekoa. Bartzuen eta besteen artean konfliktuak egon litezke, dirudie-nez badaude dagoeneko. Seguru asko nazioaren kontzeptu (operatibo) ezberdinak dituzte, eta bakoitzak bere ikuspuntutik arrazoituko dizu.

Nolabait bi posizioak josten saiatuko naiz ni sarrera honetan, ikastaro honen xedea horrelako zerbait delakoan. Diferentziak berez legitimoak direla suposatuz, “pentsamendu bakarrera” iristeko asmorik batere gabe, nik planteatzen nezakeen guztia galdera da, ea tresna teoriko zuzenekin, formulazio egokiarekin ari ote garen, ala berezko diferentzietan gainera ez ote ditugun formulazio dudagarriekin diferentzia gehiago sortzen. Eta ez dut dudarik egiten, nire formulazioak beste edozeinenak bezain dudagarriak direla.

NAZIOA, ERRESUMA, ETA DIALOGO INPOSIBLEAK

Hasteko, Erdi Aroaz gero behintzat, Euskadi esaten duguna inoiz ez da izan erabat euskalduna (verbi gratia: Tuterara, Karrantza), eta inoiz ez da independentea izan (Nafarroako erresuma nazioanitze gorabehera).

Vasconia/Euskal Herria/Nafarroa/Euskadi: nazioa da?... Eta zer, hala bada ere?, edo ez bada ere?

Saia gaitezke, berdin da antropologia, soziologia edo historiarekin, nazioa zer den esplikatzen eta nazioa garelara erakusten. Bigarren urratsa da, ordea, eta buruhausteko guztiz diferentea, nazioa garenaz gero subiranoak garelara ueste izatea, edo subirano izateko eskubidea dugula gutxienez. Segitzen da nazio izatetik subirano izatea? Subirania lortzea ez da arazo teorikoa. Subiraniaren guraria justifikatzea bai, printzipioz arazo teorikoa da, edo izan beharko luke. Baina Kataluniako istiluek zerbait irakatsi badigute da naziotasunaren eskubideen edo subirania nazionalaren eztabaidak politikan ez daramala inora (Espainian bederen); eta eztabaida hori antzinate nazionalarekin eta erresumaren historiarekin lotzen bada, kaosean amaitzen dela. Arrazoiketa teorikoak inportanteak geuretzat dira, gure posizioaren zergatikoa

geuk garbi edukitzeko; baina kontrarioaren aurrean –hura konbentzitzeko edo– ez digute deus balio.

Azken urteotan gauzak zerbait aldatu direla esango nuke. Naziotasunaren oinarritzapena historiarekin lotzera edo (argumentazioa izan gura gabe) historian erakustera, Kataluniari dagokiola, ohiturik geunden P. Vilar-ez gero (ik. *El hecho catalán. El hecho portugués*, Hiru 1999). Estatutuaren polemikak, ordea, anabasa totalean pulunpatu gaitu: alde batetik nazio katalanaren sustraiak Erdi Aroan ikusten dituztenen arrazoiek, eta bestetik K. a. 800 urteetan jada Kataluniak Espainia feniziarreko parte egiten zuela “demostratzen” digutenekin, eta gero ere espainola izan dela grekoen nahiz erromatarren aroetan, are Hispania bisigodoaren hiriburua Bartzelona izan zela, inperio franko (karolino) aren barruan Marca Hispanica izan zela, etab.; hitz batean, Katalunia beti-beti Espainia izan dela. Historia mila modutan konta liteke eta, bizitzaren maistra bezainbatean, denetarik irakasten du, antza. Hobbesek aspaldi irakatsia ziguna berriro ikasi dugu, hortaz: alegia, ahaleginak ahalegin, eskubideak historiarekin justifikatu gura izateak ez daramala inora, ez baita posible “to derive from them any argument of Right, but only examples of fact” (*Behemoth*, Part II, 1682). Historiak ez du eskubiderik ematen (irabazleari ez bada).

Subiraniaren justifikazio lanetan historiak laguntzen ez badigu, Herodotok ere ez digu asko laguntzen. Nazio kontzeptuaren esanahi eta balio egiazkoa zedarritzea –politikoki– Auzitegi Konstituzionalaren esku omen baitago: “La Constitución no conoce otra que la nación española”, epaitu du horrek, Estatutu katalanak deklaratu asmo zuenaren aurka. Kataluniari nazio iriztea zilegizkoa izan liteke “en un sentido ideológico, histórico o cultural”, baina bakarrik “en

cualquier contexto que no sea el jurídico constitucional”, eta beti ere garbi geratuz “la insoluble unidad de la nación española”.

Nazioa politikoa dela baiesten diharduenak horri egin behar dio aurre, nazioa eta euskara bigiztuz dituenari gabe.

(Jokoan dabilen beste bitxikeria bat ahaztu gabe: neureztat, Estatu eta Eliza –pentsamendua arautu ahal diena fededunei– beti nahastu dituen kultura espainolean bakarrik da negargarriro posible Konstituzioak eta Auzitegi Konstituzionalak diotena autoritate handiagoa izatea Herodoto –edo beste edozein– baino; h. d., nor da Auzitegi Konstituzionala edo zer Biblia Santu da Konstituzioa, nazioaren kontzeptuarekin eztabaida publikoan zer bai eta zer ez ulertu ahal dugun eta behar dugun dekretatzeko?).

Epaile Konstituzionalak utzi eta, intelektualeria organikoarentzat, zer axola dio Harri Aroz gero nazio bagara ere? E. Lamo de Espinosa Complutensean Soziologiako katedratikoaren artikulua bat aipatuko dut, intelektual espainol gehienek postura arrunt islatzen duelakoan: “Una vez más, en España (...), grupos de ciudadanos que sienten afinidades lingüísticas o étnicas afirman que son una nación, lo que les daría derecho a autodeterminarse y, eventualmente, a articularse como un Estado propio (...). Pero en los albores del siglo XXI, y con un mundo globalizado y en una Europa unida, ¿tiene sentido ese argumento? Dicho de otro modo, ¿importa hoy ser nación?” (*El País*, 2015-01-23). Jarraian, nazioaren teoria errepatatzen du; beti erabiltzen diren eske-mak (nazio frantsesa, nazio alemana), eta topiko zahar gaindiezinak (Herder: “a cada *Volkgeist*, su Estado”), etc., Orte-

ga y Gasset zinez irakurria balu errepikatzen jarraitzea lotsa eman beharko lioketenak. Volksgeistak ez daukala zerikusirik Herder-ekin eta Estatuarekin Ortega y Gassetek oso ongi baitzekien. Izan ere, artikulua Ortégaren aipu batekin abiatzen da: “El Estado comienza cuando el hombre se afana por evadirse de la *sociedad nativa* dentro de la cual la sangre lo ha inscrito. Y quien dice la sangre dice también cualquier otro *principio natural*; por ejemplo, el idioma..., el Estado consiste en la mezcla de sangres y lenguas. Es superación de toda sociedad *natural*”. Hizkuntza, nazioa, gizaberearen “printzipio naturalak” dira (gutziz ohargarria hori aitortuz hastea!), eta printzipio polistarrak (politikak) gainditu egiten omen ditu. Gainditzeak Ortégarentzat, eta Ortégarekin Lamo de Espinosarentzat, ukatzea eta ezabatzea esan gura du, guretzat ez bezala. Konklusioa da nazioak gaindituak daudela Estatuan, Estatuan hain zuzen – gero autoreak *ad abundantiam* Europa Batua eta globalizazioa alegatzeak apaindurarena beste egitekorik ez du argudiabidean. Baina ondo geratzen da: “El camino de Europa, que es también el camino de la emergente civilización mundial, potencia la unión política, no la división”. Gure adineko irakurleak sobera ezagutzen du diskurtso mota hori: “unidad de destino en lo universal”. Ortega y Gassetengandik xuxen-xuxen doa José Antonio Primo de Rivera eta Lamo de Espinosa eta egungo intelektualenganaino. Hori da “trantsizioa”.

(Zuzenezko ondorioa baino ez da izan katalanek, nazio-tasunaren arrazoia hutsaldu eta de fakto debekatu egin zaie-nean, hori utzi eta zio demokratiko eta pragmatiko soilak bandera bihurtzea. Baina ez genuke engainatu behar; denek ulertu dute zein den helburua: “ezin bagara nazio esan Es-

painia barruan, izan egingo gara kanpoan!”. Planteamendua abertzale/nazionalista da, hitz hori aipatu gabe).

Modu drakoniarragoan ere adieraz daiteke, eta gogoan hartu beharko genuke logika hau, naziotasunak nola ez duen subirania garantizatzen. Hain zuzen, historiak erakusten du nola ez duen garantizatzen. Izan ere, Bodinen arabera (XVI. mendean) “subiranoa, erabakitzeke eta legeak eman eta besterengandik ez hartzeko ahal edo boterea duena da”. Ahala duena, alegia; ez eskubide duena (hori Rousseau da). “Cataluña es un Pueblo como tantos otros –kurdo, tibetano, mapuche, vasco, inuit, tártaro...– a los que yo he dado en denominar ‘Prescindibles’. Es un Pueblo que por los motivos que sea –cobardía de sus mandos, traición de sus dirigentes, debilidad de sus instituciones, mezquindad de sus gentes, ineptitud o sencillamente por mala suerte entre otras muchas causas– no ha podido o no ha sabido mantener su independencia de otros Pueblos y por ello mismo está condenado a la desaparición como entidad colectiva. Este hecho que podríamos calificar propio de la Historia Natural, no es vergonzoso en sí mismo; todos los Pueblos habidos y por haber han desaparecido de la faz de La Tierra por muy honda que haya sido su huella en el devenir humano como lo demuestran sumerios, acadios, partos, celtas... Lo que es patético, es que cuando se está a punto de exhalar el último suspiro, acontezca el espíritu de resistencia, echado en falta cuando era necesario para no sucumbir a la ignominia de convertirse en un Pueblo sometido sin apenas haber luchado por su libertad. Más aún; roza el paroxismo pretender ser soberano pidiendo permiso legal para ello y del todo ridículo creer que es posible decidir sin contar con un ejército que respalde la decisión (...). Me gustaría estar equivocado, que la Sobe-

ranía, fuera esta Regia, Nacional o Popular, emanara de la Inteligencia Divina o en su defecto de la Humana. Pero la realidad se empeña en demostrarnos que los Pueblos Soberanos son aquellos que se imponen a los demás o cuando menos, los que no permiten que otros les impongan su voluntad” (N. Lococo, “De la soberanía”, in: *Deia*, 2014-04-10).

Azken honetan “historiarik gabeko herrien” patuaren filosofia, modernian zehar Machiavelli eta Hegelengandik Engels eta Lococorengana, eta horrelaxe esan gabe horrelaxe praktikatzen duten askoenganaino sigi-saga nasaietan datorrena sumatuko zenuten. Ez horrekin ez beste iritzi aipatuekin dago zergatik ados egon. Baina gutxiago dago pentsaera horiek daudena ahazterik, gure kontuak pentsatzen eta kontatzen ditugunean. Guk, hala ere eta horregatixe, horien buruz buru geure pentsamendua zein den jakin behar dugu, eta, jakiteko, aurrena formulazio koherente burutu samartu bat behar dugu eduki.

“Nazioaz” arduratu diren egungo autoreek (E. Gellner, Hobsbawm, B. Anderson), zuzenean Estatuari begira –Boterearen eraikuntzari– edo hari zeharbegira egiten dute beti. Gure galdera, ordea, hauxe da: zer da nazio bat, modernitatean egon bai, baina botererik ez daukana? Horiek ez bezalako gogoetara behartuak gaude geure kasua pentsatzeko. Euskal Herriak ez du Subirania/Botererik; “sakabanazioa” da. Erdi Arotik zatikatua atera da eta zatikatua jarraitu du, Foruen sistemak ez du hori konpondu eta inoiz ez da ahalegindu bere-bere botere gune bat jasotzen eta harresitzen eta nazio osoa haren ingurura biltzen. Nafarroako erresuma Ernazimentuan dagoeneko galdu eta gero, Foruak ez ziren pribilegioak, baina euskal probintziek pribilegio “historikoak”

balira bezala baliatu eta defendatu dituzte, azokako tratularien gisarago, botere zentralari buruz buru botere propioa gotortzeko planteamenduz baino. Kontzertu Ekonomikoa, euskal subirania historikoaren azkeneko Amaiurtxo hori, beste dena armaz kenduta geratu den subirania hondarra da, ez da pribilegioa. Ez? Zer uste du, Espainian ez ezik, Euskadin bertan jende askok? Hala ekarri gaitu historiak gauden puntu honetaraino.

Gu ere azken urteotan, nazio eta estatugintzaren gogoeta suspertu ahala, Nafarroako erresuma ohiaz interes berrituz interesatzera etorri gara. Badakigu historiak argumenturik ez digula emango, baina bai gogoetagaia. Gogoeta horretan eztabaidarik falta ez bada ere, eta behar bada formulazioak orrazten jarraitu beharko dugun arren, garrantzizkoena da, Walter Benjaminekin esateko, posible izan zenaren eta izan ez zenaren memoria piztu dela. Nazioaren historia ikusteko modu berri bat. Ikusteko zergatik gauden, gauden puntuan. Irabazle ustetan, galtzaileen historiaren oinordeko gara. Eta –orain esaten den bezala, Gramscirekin-marjinatuak eta ahalgabetuak, subalternoak, adiera askotan baldin bagara, adiera guztiz inportante bat gure subalternitate nazionalarena dela. Oraindik ez gara nazio politiko bat, bere Estatuarekin, baina, tirriki-tarraka, nazio natural bat izateari oraingoz eutsi diogula. Gure naziotxoaren naturaltasunetik hasi beharko dugu meditazioa: politika egiten hasi baino lehen, zer garen gu, politika egin nahi omen dugunok, eta zer nahi dugun politikarekin.

NAZIOA EZ DA KOMUNITATE POLITIKOA

Nazioa ez da politikoa (itzuliko naiz neure burua zuzentzera). Nazioaren kontzeptua zentzu batez ere edo soil politikora uzurtzea, gutxienez arriskutsua da. Esaterako, adiera antropologikoari kontrajartzen bazaio, politikarekin zerikusirik duena “nazio politikoa” bakarrik balitz bezala. Hone-la moduzko eskemak erabiltzen direnean, adibidez, nahiko arrunta baita: “behiala nazio kulturala zen, gero nazio politiko bilakatu zen”. Hori, zuzen ulerturik, zuzena izan liteke, baina errazegia da oker ulertzea (Katalunia nazio kulturala da, ez da nazio politikoa). Okerrago dena, askotan oso interesatua izaten baita murrizketa hori, politikaren eta Estatuaren kontzepzio jakin bat errebelatzen du. Zer ulertu behar dugu nazio politikoarekin? Hona hemen bi adibide, politikari euskotar ezagunenak; bat euskalduna, bestea baskoa.

Rosa Diezen pasarte batzuk aurrena, testu luzeago bategatik. Estatutu berria zela-eta, iskanbila supiztu zenean Katalunia nazioa den ala ez den, Zapaterok nazioa zentzu ezberdinetan har zitekeela manifestatu zuen. Rosa Diezen erantzukia antologikoa da:

“Si no fuera trágica, la cosa sería cómica. Pero es trágico que el Presidente de un Gobierno democrático [Zapatero]

no sepa, a estas alturas, que no hay más nación política que la nación jurídica [nazioa nazio politikora erreduzitzen da, politikoa juridikora]. *Que es la ley la que hace nación, no el sentimiento identitario, ni la lengua, ni el folklore, ni los atavismos históricos más o menos consistentes o inventados.*

No sirve para nada, no vale proclamarse nación para serlo. No vale decir «somos nación porque nos sentimos nación». (...) No tiene ningún efecto jurídico. Y como no tiene ningún efecto jurídico, pues no tiene ningún valor político (...).

Estábamos acostumbrados a escuchar a los nacionalistas invocaciones a la nación sentimental. Formaba parte del paisaje que alguien se levantara en las Cortes, o en cualquier parlamento autonómico, para hablar de sus sentimientos de pertenencia. Pero que el Presidente del Gobierno apele a una nación política diferente de la jurídica es algo superior a lo que cualquiera podría esperar. (...) Creíamos que después de aquella tontería de «la nación es un hecho discutible y discutido» ya habría aprendido algo; al menos a callarse los pensamientos bobos. Pero no: bastó un debate envuelto en su vocación de interpretar el propio orden constitucional para que insistiera en su vocación, *adanista* hasta para esto.

(...) En todo caso, sea por lo que sea, qué triste destino el nuestro (...). Zapatero abrazando la nación sentimental que siempre persiguieron y quisieron imponernos los nacionalistas (...).

No nos interesa ninguna nación sentimental. Sólo nos interesa la nación democrática española de ciudadanos libres e iguales cuyos derechos define y ampara nuestra Constitución. Y nos interesa la unidad de la nación española para garantizar esos derechos (...). Eso, y no otra cosa, es lo que queremos defender cuando exclamamos: ¡¡¡Viva la Constitución!!! Eso, y no otra cosa, es lo que defendemos cuando, también nosotros, exclamamos: ¡¡¡Viva España!!!” [... azkenean nazio juridikoa

Konstituziora erreduzitzen da, eta Konstituzioa Viva España-ra].

Bigarren testua Joseba Arregirena da (testuingurua, berriez ere, nazionalista katalan eta euskaldunena):

“La única manera de construir nación sin romper a la sociedad es creer en una nación de ciudadanos y no de hablantes de una lengua, pertenecientes a una cultura o seguidores de un mismo sentimiento (...). Ser ciudadano no exige [hori egia da] ningún sentimiento de pertenencia y llevado al extremo no exige ni siquiera compartir una lengua” (*eldiario.es* 2015/03/29) – Talde partaidetzako sentimendu oro, hizkuntza propioa bera, etab., baztertzea da “la única manera de construir nación sin romper a la sociedad”.

Badakit askotan hitz berdinekin ez direla asmo berdinak adierazi gura izaten. Baina “nazioa fenomeno politikoa da” edo “nazio demokratikoa hiritarren nazioa da” bezalako esaldiak topatzean, ulertuko duzue gutako batzuek alergiko samar erreakzionatzea.

Hiritarrak denok gara. Baina: 1. ez geuk gure buruak hala deklaratu ditugulako, ezpada norbaitek halakoak deklaratu gaituelako. 2. Inork hiritar deklaratu nintzan baino lehen, pertsona nintzen, pertsona gisa herritarra nintzen, herritar gisa harreman sare bateko kide nintzen (familia eta lagunartebateko, kultura amankomun bat nuena horiekin batera, etab.), hots, banuen identitate bat: euskalduna nintzen hain zuzen. Gero etorri da hiritarra izatearena, goitik ezarria (herritarra ezabatu nahirik etorri ere). 3. Beharbada jende bategi, hiritar libre gisa, ezabatu egin gura luke bere gaurko hiriritasuna, eta beste era bateko edo beste nonbaiteko hiritar bilakatu; eta bere “eskubidean” dago horixe egiteko.

Horra zergatik insistitzen dudan, nazioa lehen-lehenik fenomeno naturala dela. (Beste batzuek nahiago izaten dute antropologikoa edo kulturala esan, berdin zait). Ni eta nire erkidego naturala, Estatua eta hiritarra baino lehen, gauza asko gara. Nitasun eta gutasun funtsezkoenak hain zuzen, Estatua eta hiritarra baino lehen eta haren gainetik gara. Beste guztia gure buruak Leviatanen –Estatu Arrazoiaren– jostailu deklaratzeari litzateke. Hori salbatzeko asmatu dute Estatu demokratikoek eurek Estatua baino lehenagoko “Giza Eskubide Natural”en deklarazio estatalaren paradoxa.

Politikara erredukzioak eskubiderik gabe eta moralik gabe uzten gaitu. Okerrago, morala ez ezik, konsekuentek izanez gero, gizartea, herria, nazioa, eta azkenean giza historia, dena Estatu “razional”era erreduzitzen da (edo horren erabateko ukora: Estatura orduan ere, negatiboki). Hots, ustez bilatzen genuenaren kontra, Rosa Diez eta Joseba Arregik berariaz dagiten bezalaxe: Konstituziora. Nazio zibiko edo hiritarraren aldarri eta diskurtso politarekin ezkutatzen dena da nazio hori zinez kanoi eta fusilen nazioa dela Konstituzioarena baino oinarrianago. Konstituzioak joan Konstituzioak etorri, Zuzenbideak baino iraunkorkiago nazio horren hezurdura tinkotu, Botereak egiten duela, polizia eta Armadarekin. Konstituzionalismo formalista baten, edo XVII edo XVIII. mende “razionaletara” itzularazi nahi gintuzkeen Ilustrazio baten izenean, bazter uzten dizute historiak, antropologiak, soziologiak ikusarazten diguten guztia. Marxen eta Antimarxen ondorengo askoren artean ere, Hegelak asko agintzen jarraitzen du...

(“Nazio politikoaz” edo nazioaz zentzu politikoan mintzatzea badagoena, bistakoegia da “aitortu” beharrik ego-

teko. – Nazioaz zentzu etnikoan eta zentzu politikoan, edo nazionalismo etniko eta zibikoaren nahasmenduaz, ik. oharpen argitsuak eta jakingarriak in: J. Zabalo, “Euskal nazionalismo motak nazioaren ikuskeraren arabera”, in: *Uztaro* 26, 1998, 27-46. ID., “¿Es realmente cívico el nacionalismo catalán y étnico el vasco?”, in: *Papers* 72, 2004, 67-85).

ZERI LERITZOKE GAUR KOMUNITATE NATURALA

“Gaur” hau, eman dezagun, XVIII. mendearen bigarren parteaz gero da, eta batez ere XIX.etik aurrera. Europan nazioen txikizio edo birregituraketan aroa da hori.

Gogoratu ditugun Herodotoren historien ondoren nazio eta polis grekoen gainbehera dator, Jerusalemen hondamena eta nazio juduaren barreiaketa lurbira zabalean, Alesander Handiaren Inperio helenista eta Zesarren Inperio erromatarra. Engoitik filosofia moral kosmopolitak eta Orienteko erlijio unibertsalak jabetu dira munduaz, kristautasuna oroz gain. Eta gero, Erromaren Erorikoa eta iparraldeko Herrien Migrazioen ondoren, Erdi Arotik gora eta Birjaiokunde humanistak eta filosofia “ilustratuak” zehar, poliki-poliki, herrien nahas-mahasean leinu jaun batzuen inguruan/azpian monarkia eta “nazio” europar berriak buruak altxatuz joan dira.

Modernian sartu, nazioaren kontzeptu klasikoarekin sartu gara. Bi adibide aipatuko dut berriro, badaezpada biak frantsesak (Kant, Herder, etab.ek kontzeptu bera dutela, ez dago esan beharrik). “La parole distingue l’homme entre les animaux: le langage distingue les nations entre elles”: Rousseauen *Essai sur l’origine des langues*-eko lehen peripausa horixe da (1755eko zirriborro amaitugabea, 1781ean

postumo argitaratua). *Discours sur l'origine et les fondements de l'inégalité parmi les hommes-en* (1755), hastean gizon-emakume banakoak alderrai ibilki deslai bizi zirela suposatu ostean, nazioen sorreraren esplikazio hau eskaintzen du. “Les hommes errants jusqu’ici dans les bois, ayant pris une assiette plus fixe, se rapprochent lentement, se réunissent en diverses troupes, et forment enfin dans chaque contrée une nation particulière, unie de mœurs et de caractères, non par des règlements et des lois, mais par le même genre de vie et d’aliments, et par l’influence commune du climat”. Herri litzateke nazio naturala, bere ordenamendu naturalarekin, arauak eta legeak (politika) baino lehenagoko antolamendu komunitarioan bildua.

Ez da nazioari hizkuntz komunitate esaten zaiola, baizik ere hizkuntz erkidegoei nazio esaten zaie; nazioa hizkuntzan errekonozitzen da. Hizkuntz komunitateek, hitz eta pitz egiteaz gainera, beste gauza asko egiten dute, noski. Ez gara luzatuko Rousseauk hizkuntzarekin emozioak, sentimenduak, eraspenak nola lotzen dituen ikusten; ezta nazioaren independentziaz eta politika nazionalaz beste testu batzuetan idatzi duenaz ere (Korsikaz eta Poloniaz, bereziki).

Bigarren autorea Montesquieu da, Herri Gogo edo Volksgelistaren doktrinan Hegelen maisua. (Alabaina, Montesquieu Erregimen Zaharreko gizona da, ez zaio burutik pasa Herri Gogo eta Estatua bateratzea, Iraultzaren osteko Hegelek egingo duen bezala). Batetik –irakurtzen diogu bordelesari–, nazioa dago eta haren “les mœurs et les manières des institutions” (herriak bere instituzioak dauzka, Estatua eta legeak baino lehenagokoak); beste maila batean, legegintza edo Estatua dago, Boterearen organizazioa. Montesquieuk honela bereizten ditu alde biok: “les lois règlent plus

les actions du citoyen, et les mœurs règlent plus les actions de l'homme" (*homme* versus *citoyen*). Estatuak errespetatu eta "obeditu" egin behar ditu herriaren ordenamendua eta ohiturak. "C'est au législateur à suivre l'esprit de la nation, lorsqu'il n'est pas contraire aux principes du gouvernement; car nous ne faisons rien de mieux que ce que nous faisons librement, et en suivant notre génie naturel" (XIX, 5). Inoiz herriaren berezko ohitura haiek "hobetzeko" interbenitu gura badu, pedagogiaz jokatu behar du: "lorsqu'on veut changer les mœurs et les manières, il ne faut pas les changer par les lois; cela paraîtrait trop tyrannique".

Hori dena (nazioaren eta Boterearen bereizketa) lorrindua dago ja; Botereak (Estatuak) dena inbaditu du, nazioa ere bai, eta monarkia absolutistekin nazioa eta Estatuak konfundituz joan dira. Aro Modernoan eta Garaikidean, muga territorialeak nazioartean eta Estatuaren omnipresentziak jendartearen gainean zein barruan, lehenago ez bezalako garrantzia hartu dute nazioari buruz, askotan nazioaren gainetik. Estatu-Nazio berriaren presioaren azpian nazioa adiera politiko soilera joan da estutuz, eta azkenean nahaste-borraste bat bilakatu da nazio kontzeptua. Gaur nazioarekin, 1. Estatuak ulertzen da; 2. Estatuaren barruan, horrek beren identitatea definitu dien bere subditoen baltsa ulertzen da (hiritarren nazioa; hiritarra, baina, subdtoa da, bere identitatea Boteretik daukana!); 3. Nazio klasikoa ulertzen da, edo, orain esatenago den bezala, etnia. Bigarren eta hirugarren adierak Robert Lafontek "nation primaire" (3.a) eta "nation secondaire" (2.a) bezala bereizi zituen (*Sur la France*, 1968). – Bide honetatik zihoazen gure garaiko beste irakurketa batzuk gogoratzeko (Maritain, Simone Weil), ik. *Karlos Santamariaren pentsamendua*, 2013, 48-50, 193-195 –.

4. “Nazionalitate”, “minoría naziional”, etab., kontzeptuak ugaritu dira, Nazio betiere Estatuarentzat gordetzearren.

5. Nazio kulturala eta nazio politikoa gisako bereizketak asmatu dira; eta gehiago. Nazio kulturala ezaugarri objektibo batzuk lituzkeena litzateke (hizkuntza, etab.); politikoa bere identitatearen eta diferentziaren kontzientzia lukeena (subjektiboa), Estatu bila diharduena, edo bere Estatuia lortua duena bereziki (Nazioia Estatuia daukan kolektibitatea da K. W. Deutschen definizioan). Naziotasuna omen dagien “nazio kontzientzia” hori zer den, zaila da zermugatzeta. Orain esaten den bezala, konstrukto soziaia da, historikoki baldintzatuia. Estatuak ezarria izan litekeela, edo norberaren barrutik ernea adina izan litekeela kanpotik inposatuia, Sartrek ohartarazi zuen: “le Juif est un homme que les autres hommes tiennent par un Juif” (“Réflexions sur la question juive”). USAn “beltza” zuriek halakoa kontsideratzen duten jendea den moduan. Geure agoteez eta buhameez oroit gaitezke. Labur: nazioaz mintzatzea ekibokoz josita geratu zaigu. Ez da harritzekoa, jokoan botere esparruen nagusigoa baitago.

Estatuia eremu guztietan jaunduz joan den artean, Estaturik gabeko nazioak mugaldeetan zirrindarak galduz eta barruan bizi-indarra amatatuz joan dira, autokontzientzia urtuz, hizkeran bezala karaktere nazionalean lurmenduz, desintegratuz, kaskartuz. Estaturik gabeko nazio guztiei gertatu zaie hori: Eskozia, Gales, Britainia, Alsaziaren kasua eskandalosua da, Okzitania, Lurralde Katalanak; Andorra edo Luxenburgori ez bezala. Botere sareen jabe ez den nazioia, luzarora, diluitua geratzen da eta higatuz joaten da. Alderantziz, gutxiengoa izanik ere, Estatuak inkarnatu duen nazioia (haren hizkuntza, historia, etab.ekin) gailendu eta hedatu eta aberastu egiten da, ikus “frantsesa”ren edo “gaztelania”-

ren historiak. Funtsezkoa da hori ohartzea nazioaren patua modernitatean ulertu nahi bada eta ondorioak atera. Behialako euskal nazioa zarpaildurik eta herbaldurik dago: politiko-administratiboki Frantziako eta Espainiako probintzietan banatua; kulturalki Iraultzak, karlistadek, industrializazioak, sekularpenak moldegabetua. Komunitate (nazio) tradizionala desegina dago, betiko, eta ez geure errurik gabe. Ez gara izan ginena eta ezer berririk izatera ez gara heldu.

Gauzak horrela, zeri leritzoke gaur euskal komunitate naturala?

Komunitate edo herri baten elkarbizitza naturala ez du hizkuntza berean naturalki mintzatzeak soilik egiten; bizitza komunitarioa mila gauzak osatzen du. Orain eta hemen Grezia ahomentatzen ari garenez, Joko Olinpikoak aipa genitzake, batasun eta identitate nazional grekoak apenas izan baitu espresio ikusgarriagorik. (Ahaztu egiten da, baina اندrazkoen olinpiadak ere egon dira, “Heraiak”). Olinpiadak festa atletiko eta erlijiosoak ziren (kulturalak), literarioak (teatro, poesia, musikarekin), politiko eta diplomatikoak, komertzialak. Ez naiz luzatuko, baina nazio kontzientzia zirtzikatua berregiteko, elkartasunaren naturaltasuna erreberritzeko, hamaika modutako “festa nazionalak” (behialako Lore Joko eta oraintsuko Aberri Egundetatik, egungo Gure Esku Dago, euskal futbol, Korrika, Bertsolarien Txapelketa eta Amaiurren oroitegunetaraino) baliabide efikazagoak dira gure ikastaro guztiok baino, eta eskerrona zor diegu holakoen antolatzaileei. Euskal Herria bere osoan ezagutzera emateko txango historikoak, artistikoak antola litezke orobat, etab. Beharbada ikastaro honek berak ideia batzuk eta bultzadaren bat eman lezake, zer egin Euskadi osoa bilduko luketen ekitaldi alaiak asmatzeko. (Kirolak kohesio nazionalaren eragile

gisa duen inportantziaz ohartzeko, aski da Espainian “la Roja”ri ematen zaion trataera ikustea).

Zentra gaitezen hizkuntzan. Hizkuntzaren garrantziaz komunitate naturalaren ardatz eta espresio den heinean, Humboldték anekdota bat kontatzen du: nolako zirrarra eragin zion behin corps diplomatikoaren bilkura batean, Londresen enbaxadore zegoela, ustez ustekabeen inguruko nondibait alemaneraren doinua sumatzeak, zer hitz egiten zen oraindik ulertzeke ere. Hizkuntza bat musika bat da. Antzeko esperientziak denok egin ditugu, Londresen edo Berlinen bat-batean euskaraz entzunda parean... Baina behin baino gehiagotan ez al zaigu hori bera Bilbon eta Donostian bertan agitzen? Hartaraino gaude etxean arroztuak. Medikuak edo erizainak euskaraz egiten badigu, konfiantza sentitzen dugu. Hizkuntzak komunitatea sortzen du – famili sentimendua, “odol-berekotasuna”. Barne aldera erkidegoa trinkotzen du, elkartasuna indartzen du. Ikustea dago euskal literaturaren inguruan bildu den mundutxo (literatura baskoaren inguruan ez bezala), euskal kantak nola lotzen dituen gazteak, etab. Kanpo aldera hesi bat da. Ongi ulertu zuten “euskaldun fededun”ek erdal ideia liberalen aurka euskararen defentsa fede katolikoaren defentsan azkartu zutenean. Sentimenduen kontu hutsa? Bai eta ez. Sentimenduak defendatuz gizon-emakumea defendatzen da. Beraz, sentimenduak baino askoz gehiago. Ni neu sinetsirik nago, euskararik gabe laster Madrilgo kolonia kultural hutsa izango ginatekeela, probintzietako basamortu kultural espainol eta frantsesen antzera. Kantaldiak berak hango taldeekin antolatuko lirateke. (Badago hizkuntzen klase-borroka bat, botere borroka baizik ez dena –hegemoniaren eta dominazioaren borroka–, eta sakonki politikoa hortaz. Behiala “euskaldun

fededun” erreakzionarioez burlatzen ginen. Orain Estatu superliberal horiek dirutzak inbertitzen dituzte chanson frantsesaren eta zinema espainolaren defentsan ingelesaren aurka).

Arazoa da, gutako asko honezkero erdizka baino ez garelara naturalki euskaldunak, euskararen erkidegokoak. Egun osoa ingurumari erdaldunetan bizi garelara aparte, alor askotan gure euskara erdarak joa dago edo erdarazko soilak da. Hizkuntza naturala izugarri plurala da: berezko pluraltasun filologikoz beste, hizkuntzan igeri dabilzan elezaharrak, ipuinak eta izaki mitikoak, edotariko izenak, etimologia faltsuak eta zuzenak, irudi asoziazioak, balioespenak, aurreiritziak, jakitateak, atsotitzak, kortesiazko formulak eta laidoak, gaitzespenak, etab.; unibertso oso bat, hitz batean. Herririk euskaldunenetan ere euskararen biziera naturala –bere baitatik– mehatxaturik dago gaur: erdarek erasota, eta geuk ere, “eskolatuak” omen garen erdi-euskaldunok erasota.

Euskararen atzerakada eta ajeak aipatu ohi ditugu, baina orokorkiago Aro Garaikidean euskal komunitate tradizional osoa desintegratuz nola joan den (joan garen) tenore berean, azterketa sakonagoa merezi lukeen gaia da: zer izan den Foru sistema eta zer den gaurko autonomia sistema; etxearen esanahia, zer izan den eta zer den orain familia, euskal patriarkatua edo gizonaren eta emakumearen rola, sexualitatea, produkzio moduak eta laneko moralak, etab. Oso aspaldikoak ez diren baina seguruenik zuentzat arrotzak diren erreferentzia batzuk aipatuz, bi aztergaitxo iradokiko nuke, norbait animatzen bada, emaitzek partzialak izan beharko duten arren. 1. Baserria: badugu “poema nazional” bat, Orixeren *Euskaldunak*, bere garaiko euskal herri jatorraren irudia izan gura duena. Irakurle gazteren batek hango

eta oraingo euskal jendearen konparazio bat entseia lezake, ea zer ateratzen den (Euskal Herri nekazaria versus industrialia, baserritarra versus kaletarra). 2. Erlijioa: “euskaldun fededun”ek egin duten euskalduntasunaren eta erlijioaren berdinketa zerbait aztertua badago ere (B. Altuna), ikuskera hura eta oraingo euskal gizarte “postkristaua” kontrastatzea interesgarria litzateke.

Ez dut iragana errebindikatzten. Zenbat galdu da, ez mundu sinbolikoan bakarrik, eta ezerekin ez dugu konpenttsatu?

Euskal nazioaren desintegrazio prozesuaz ari garenez, horren “agoniaz” (Unamunoren adieran) Salvatore Mitxelenaren obran material literario bikaina aurkitzen da ikuspegi erlijiosoarekin: *Arantzazu* poema (Golgota, Alberna, Arantzazu; Arantzazuko hiru erreketak, hiru gerra zibilak), *Bizi Nai*, *Guruzbideak*, etab. Erlijioari inportantziarik ez ematera lerratuak gara, baina mendeetan eta mendeetan komunitateen –lokalak bezainbat nazionalak– identitate zeinu funtsezkoenetakoa izan da (ermitak eta erromeriak, eliza herriaren erdigune, santu eta debozio eta jai nazionalak, etab.). Mezezi luke debozio herritarrak aztertzea, ez erlijioagatik, baina elizetako santuen irudi eta ermitetan espresatu direlako mendeetan gure jendearen beldurak eta esperantzak. Perziak Greziari eraso dionean, grekoek ez dute sentitu eraso hizkuntza grekoari egin zaionik, komunitate grekoari baizik. Eta erkidego nazionalaren sinbolo nagusia jainkoetan eta tenpluetan ikusi dute. “Arrazoi anitz eta indartsuek eragozten digute pertsiarrekin tratua egitea”, erantzun diete atenastarrek espartarrei. “Lehena eta nagusia, jainkoen imajinak eta tenpluak erre eta suntsitu dizkigutela, eta horrek (...) gupidagabe mendeku hartzea exigitzen digula” (VIII,

144). Adibidez, XVI. mendiaz gero Arantzazu sinbolo nazional bat izan da Euskal Herriarentzat (Iparraldearentat ere – orain hainbat neska ikusten da Ainhoa izenarekin: hori Arantzazu da, Iparraldeko euskaldunei erromes etortzea debekatu zaienean haiek Ainhoan ordeztu dute Ama Birjina Arantzazukoa). XX. mendean Gernika sinbolo nazionala suntsitzeko kiskali den era berean, XIX.ean euskaldun karlisten sinbolo nazionala suntsitzeko Arantzazu erre dute liberalak (hori jakitean Zumalakarregik negar egin zuela kontatuko da euskal herrietan – eta egia ez bada, *è ben trovato*).

Nazioaren kontzeptu klasikoa nahaspilatzeke Estatu modernoaren interesak asko eragin du. (Frantzia iraultzaileak “La Nation” bataiatu du bere burua, eta beste Estatuak haren eredia jarraituko dute). Baina gure kasuan badago beste kausa bat ere: geure txikizio nazionala azkeneko bi mendeetan. Modernitatearekin ezin burututa, XIX. mendetik XXI. era Euskal Herri naturala (tradizionala) erabat iraulkatu da.

[Naturala eta kulturala ez dira kontrajartzen, beti bata-beste egin dute. Alabaina, historian kontzeptuen balioa aldatuz joaten da (natural/kultural, pribatu/publiko, moral/politiko...). Gaur Estatuak biziera publiko nahiz pribatu osoa inbaditu du. Aski naturala iruditzen zaigu familia, lana, etab., dena legez arautua egotea eta edozein tokitan Nortasun Agiri batekin identifikatu behar izatea. Zeri esango genioke gaur euskal komunitate naturala, euskal nazioa? Susmo txarrik inori ez uzteko: nazioak historikoak dira eta kulturak dira. Naturalak esentzia metafisikoekin zerikusirik ez dauka, eta animaliekin ere ez. Naturala jendeak naturaltzat, hots, normal-normaltzat daukana da, single samar esanda. Behiala, auto bat herrian agertzen bazen, jendea kalera irteten zen ikustera; gaur, auto bat pasa, eta inork ez du burua buelta-

tzen. Gaur naturala da, atzo ez. Ez dauka zerikusirik esentzia edo esentzialismoarekin. Pixka bat konplikatua esateko: naturala kontzientzia kolektiboak beragandik ez menpeko uste duen errealitatea da; hots, bere aurretiko datutzat edo berezkozat daukana, eta kuestionatzeak zentzurik ez duela deritzona. Mendia hor dagoen bezalaxe uste izatea dagoela eta ezin dela ez egon Estatu, Guardia Zibila, zergak, fronterak. Homosexualitatea naturala al da? Kultura batzuetan bai, inkultura batzuetan ez, tamalez. Pena ematen duena, batzuk horren naturaltasunaren probak abereen munduko adibideetan bilatzen ikustea da, eta Naturaren kontzeptu zaharkitu bat berresten horrela, patarietan “ereduzko natura” suposatuz, adimenik eta kulturarik baino lehenagokoa. Homosexualitatearen naturaltasunaren kontzientzia kolektibora pertsona ororen berdintasunaren ezagutzetik iristen gara, ez animaliekin konparatetik. Berdin beste “giza eskubide natural” guztiak, autodeterminazioaren eskubidea barne. Nazioa, naturala, horren naturaltasuna aitortzen duen (kultur) arentzat da, ez kualitate metafisikoren batzuegatik. Horregatik dago borroka aitortza horren alde eta aurka. Eta horregatik da garrantzirik handienekoa nazioaren naturaltasuna, edozein politika baino lehenagokotasuna, errebindikatzea: hain zuzen, horrela bakarrik nabarmenaraz litekeelako ez dela naturala, bortxak inposatua baizik, euskal nazioaren egungo egoera Estatu espainolaren eta frantsesaren egitura politikoe-tan, urte askoko indoktrinazioak egitura horiek naturaltzat edukitzera jarri badu ere hainbat jende].

ZERK EGITEN GAITU EUSKALDUN?

Irakurria duzue egunotan: “Euskarak ez gaitu euskaldun egiten, baginak emakume egiten ez gaituen bezala. Subalternitateak egiten gaitu euskaldun, batetik, eta emakume, bestetik” (Jule Goikoetxea: *Berria*, 2015-06-10). Testuak probokatzailea izan gura du, ez da dudarik. Baina probokazioak, oso ondo idatzia gainera, zakurra lozorrotik iratzartzeko balio badu, hozka egitera animatzeko arriskua ere badu. Zer, esentziak hainbeste erdeinatu eta gero, subalternitatea da orain esentzia platoniko berria, munduko aniztasun barreiatu nabarra –emakumeak, euskaldunak, mila modutako subalternoa– zerizan unibertsal batean biltzen eta berdintzen dituen? (Artikuluak berak jolasten du objektio hipotetiko honekin). Subalternitateak “egiten” bagaitu euskaldun eta “egiten” bagaitu emakume, euskaldun denok emakumeak ote gara? Erraz jaus gaitezke holako bizantinismo zentzu handirik gabekoetan, eztabai posible gabekoa baita euskalduna ez dela derrigor emakumea, eta emakumea ez beste gabe euskalduna, eta euskaldun denok subalternoa bai, baina denok ez Lizardi. Beraz, esan itxuraz testuak hitzez hitz horixe esaten badu ere, agerian dago ezin dugula horrelaxe ulertu.

Hor amaituko litzateke kontua, holako formulazioekin proboka litekeen erredukzionismoaren arriskua ez balego – eta iraganeko gure historiatic mintzatuko naiz berriz ere. Subalterno psikologikoa, subalterno sozial-ekonomikoa, politikoa, subalternoak era askotakoak daude, subalternitateak moduak eta moduak dauzka. Gaurko euskaldun konplexuz bete herabetiok, subalternitate mota batek arimaren zolaraino markatu eta “eginak” gaudena, denok aitor genezake. Baina honezkero gure miseriaren egartzaile pasiboak ez gara, beharbada gure aitona-amonak ziren bezala. Nik neuk behintzat, euskaldun gisa horixe besterik ez naizela, ez nizeke onartuko. Euskaldun matxinatua naiz, euskaldun gisa matxinatua hain zuzen. Euskaldun gisa naiz, ez subalterno arrunt gisa (Indiako paria, esaterako), Lizardiren irakurle, eta Goetherena ere irakurle euskalduna naiz, alemanez irakurri arren; nire adiskide euskaldunen adiskide euskalduna naiz, eta andralagun alemanaren lagun euskalduna naiz. Naizen dena euskalduna naiz eta kito. Zirkunstantzia guztietan. Konplexuekin eta gabe. Europar zapaltzaile eta europar zapaldu. Ez, ordea, autokontzientziarik gabe, ezpada euskaldun zapaldu eta zapaltzaile europar naizelako kontzientzia urratuarekin. Ni esaten dut, eta gaurko euskaldun ia denak uste dut esan nezakeela. Ahots gabeak eta mutuak Franco-ren pean izan ginen apika. Orain, bozgorailu tartailuekin, baina badaukagu apur bat hizkuntza eta ahotsa eta amorrua. Gramsciren subalternoak Mezzogiornoko erreterero eta laborari txikerrak ziren, ekonomiko-laboralki ustiatuak eta espiritualki “herriaren opioaz” alienatuak eta etsiaraziak. Gu ez gara hori, ez gara Asia Ekialdeko edo Hego Amerikako masa amorfo desanparatuak. Sozial-ekonomikoki, politikoki, kulturalki, eskola, elikagai eta osasunbide aldetik, pribilegiatuak

gara modu askotan. Hemen eserita gauden denok antikapitalistak gara noski, eta horregatik bankuan kreditua eskatu eta etxebizitza erosten dugu, edo gurasoen ekonomiatik bizi gara, lantoki kapitalista batean jasotzen dugu soldata (edo funtzionarioak gara, eta horrela beti geu iraultzailerik amorgaitzenak), zergak txintxo-txintxo ordaintzen ditugu, autoa daukagu eta gasolina ez da etxeko iturrikoa, hurrekin zinemara edo pizsinara goaz eta ordaindu egiten dugu sarre-
ra, oporretara joateke ez gara geratzen (hegazkinean segur aski), edozein katarrok animatzen gaitu industria farmazuetikoari laguntzera, Bangladeshen jositako arropa daramagu soinean, Hirugarren Munduko produktu amerikarrak maite ditugu, ezin gara bizi aparailutxo tekniko modernoenez inguratuak ez bada (zenbat sakelako telefono eta trepetatxo dago sala honetan?)... Hau da, egunaren hogeita lau orduak kapitalismo internazionala bermatzen ematen dugu geure jardunear – eta egiten dugunaren ifrentzua esaten ematen dugu egun osoa. (Egia da, euskaltzaletasunean askoz koherenteagoak ez garela jende gehiena). Europa ustiatzaileko ustiatzailea naiz; artxidoktrinatu gure duintasunaren gainean, gure eskubideez konplutuki jabetua – gure obligazio moralez baino gehiago. Naiz subalterno bat, munduan egiazko subalternoen esplotatzailea. Subalternizatua eta ezdeusetsia nazional-linguistikoki nago (emazteki gisa ere bai, baina horrek patriarkalismoarekin dauka zerikusia kapitalismoarekin baino zuzenago); h. d., Estatu moderno kapitalista/jakobinoan ukatua nazionalki nago, hizkuntzaz naiz paria: “gaztelera edo frantsesez egindako edo esandako orok balio handiagoa du euskaraz ekoizten eta idazten denak baino”, idatzi du Julie Goikoetxeak. Baina, horregatixe, euskarak matxinatzeko arrazoia eta sua ere ematen dit. Nik esango nuke euskarak

modu batean subalternoak egiten gaituela (Euskadi barruan bertan ere bai); baina ez subalterno izateak euskaldun egiten gaituela, edo subalternitateak egiten gaituela euskaldun. Gaurko euskaldunaren egoera sozial-politiko eta kulturalki anbigua da. Ezaugarritzen gaituena anbiguitate eta kontraesan artean moldatu beharra dela esango nuke. Euskaldun batzuk kapitalistak dira, beste euskaldun batzuk eta ez-euskaldun batzuk ustiatzen dituzte. Subalternoa naiz (“kolonizatua” esaten zen gure garaian), baina subalternoa *tout court*, ez. Testuak hainbeste mailukatzen du, ordea: “euskara edukitzea ez da euskaldun egiten gaituena”, “euskalduna ez da euskara duena”. Subalternitatearen biktima izatea da zinez euskaldun izatea egiten duena: “oraingoz, euskaldun egiten gaituena subalternitatea da”. Instantzia hegemonikoek objektu hutsak gara, hortaz? Objektu inkontzientek? Geure buruon identitateaz ere engainatuak? Geroago, nik neuk oso-osorik txalotu nezakeen arrazoi hau gehitzen da: “euskaldun izatea identitate kultural, sozial eta politikoa delako, eta ez da eratortzen gauza bat egin edo edukitzetik soilik (euskara, bagina), baizik eta praktika eta diskurtso kontrajarrien ondorioz sortzen diren ohitura (material eta sinboliko) gatazkatsuetatik. Horri esaten zaio nortasuna”. Nire galdera: baiespen honek ezespren haiek eskatzen al zituen?

Erredukzionismoa nazioa eta nazio arazoa “oinarrizkoagoa” suposatutako beste zerbaitetara jaitsaraztea edo behe-ratzea da (verbi gratia: biologia “funtsean” kimika da, edo Jainkoan sinestea “funtsean” fetitxismoa besterik ez da; euskalduna izatea “funtsean” subalternitatea besterik ez da, ez euskaraduna izatea). Beharbada mamuak ikusten hasia nago, zaharragoek beti egin duten moduan, gure belaunaldiak erredukzionismo askotxo ikusi baitu eskuin zein ezkerrean,

teorian bezala praktikan, ekonomikoa, politikoa, historikoa. Interes ekonomikoetara erredukzioak: euskal edo nafar diferentzia guztia Kontzertu Ekonomikoan mamitzen da; Kontzertua bai, nazio eta nazionalismorik ez (oker ez banago, hori da gutxi gorabehera PP eta UPNren posizioa). Edo, kontrako ikuspegitik: katalanen eta euskaldunen abertzaletasuna eskualde aberatsenen separatismo insolidarioa baizik ez da. Edo ustez alde: independentismoaren propaganda abantaila sozial eta ekonomikoak alegatuz egin behar da, eskoziarren eta katalanen antzera, etab. Erredukzionismo larri bat garai batean “iraultzaileek” historiaren filosofia marxistatik egiten zutena izan zen: nazio askapeneko borroka historiako estadio burgesari zegokion; orain beste fase batean gaude, borroka internazionalista izan behar du; ikastolak sortzen ibiltzea, etab., burgeskeriak dira. Ezkertiar batzuek maiz izan duten joera alegia, kapitalismoaren teoria orokorra edozein kasuren berbertoko analisi bihurtzekoa. Gero konklusio/esplikazioa automatikoa eta beti bera da. (Ik. J. Llobera, *El dios de la modernidad. El desarrollo del nacionalismo en Europa occidental*, 1996, 168-172). Abertzaletasunaren erredukzioa Arana Goiriren arrazismora Ravelen boleroa da kazetaritza espainolean. Eta euskarak egiten gaituela euskaldun esatea ere arrazismo sabindarraren bariantea baino ez omen da: “comparte al cien por cien el exclusivismo y el esencialismo de la definición sabiniana” (J. Villanueva). “Es esencialista, porque entraña la noción de unas esencias inalterables al paso del tiempo e independientes de la voluntad humana –la lengua y su espacio territorial– en las que reposa el *ser vasco* y que lo reproducen a su vez de generación en generación” (ik. nire “Esencia y esencialismo: análisis de un concepto”, 1992). Bide batez, esentzialismo eta esentzialista

“felipe”en (FLP) azote kuttuna zen. Irakurri dituzue Txillardegiren saio polemikoak? Badakigu autoreak ez digula hori esan gura. Baina zehe-mehe zer esan gura digu? Gatazka zaharren durundiak oraindik belarrietan ditugunoi, barkatuko diguzue errezelo pixka bat sentitzea formulazio batzuen aurrean.

Subalternitatea (marjinazioa, etab.) beti tartean dabilkigula onarturik –kategoria zentrala bilakatu dela begitantzen baitu–, doi-doi zer esplikatzeko balio digu gure egoeran? Hark “egin” omen gaituen euskaldunak asko gara: nola ez gara denok Lizardi batzuk? Iruntzitara: Santanderren ez dirudi subalternitateak hemen baino txikiagoa, eta zer “euskaldun” molde matxinatu sortu du han (ETA edo ELAren, edota ikastola mugimenduaren, euskal kanta berriaren, Euskadiko uhin feministaren parekorik)? Esan gura dut: euskaldun denok gara subalternoak (gizonak, emakumeak, proletarioak, homosexualak), denok ez gara berdinak eta ez era berean subalternoak; zein kategoriarekin bereiziko gara geure artean?, eta auzoetatik? Onenean ere, denok berdindu egin gaitzake akaso aspektu batzuetan; bereizi (de/finitu) errioxar edo biarnotarrengandik esate baterako, ez gaitu egiten. Gauden munduan eta borrokan asturu sozial hori eta borrokaren planteamendu hori dela substantziala adierazi gura da akaso, eta diferentzia nazionalak (hizkuntzazkoa eta) orain akzidentalak direla? (Behiala substantziala eta unibertsala klase borroka omen zen legez eta bestelako aspirazio denak ezgaraikoak)... Euskalduna (nazioa) euskarak egiten duela esateak, aldiz, ez dauzka problema horiek. Hizkuntzak bereizi egiten gaitu nazionalki, eta indibidualki ere, komunitatearen altzoratzan gaituenaz batera, bakoitzak bere-bere hizkera pertsonal konfundiezina edukitzen du, identitate

kolektiboaren barruan identitate indibidualari garabiderik libreena bideratuz. Eta auzo herrietatik bereiziz batera, haiekin elkartu egiten gaitu, jendeak eta herriak ezerk ez baititu gehiago eta mamiago elkartzen hitzak baino. Subalternitatearen edo klase borrokaren elementuak, berriz, esplizituki jaso ez, baina ez ditu baztertzen. Subalternitatea, Freuden Edipo eta konpainia metaforak baino ez ziren eran, behar bada analisisiko kategoria legez baino gure errealitatearen metafora legez iruditzen zait emankorragoa (eztabaida horretan sartzeko ez naiz inor sentitzen halere), oso espresiboa Estatutua edo Kontzertua, Unibertsitatearen autonomia (?), etc., etc., zinez direnarentzat, gure subalternitatearen espresioak baitira denak eta gure politikoen jarrerak subalternoarenak asko eta askotan.

Gauzei eta arazoei, euren arteko loturak ikertuz bai (baita loturak propio eraginez eta garatuz ere: “munduko subalterno guztiak elkar zaitezte!”), baina horietako bakoitzari bera izaten uztea komeni da. Dena denarekin lotua dago, baina dena ez da bat, metafisikan ez bada. Nazioa politikarekin lotua egoten da, baina bera ez da politikoa. Interes ekonomikoekin lotua egoten da, baina ez da interes ekonomikoen batura. Lurralde bati lotua egoten da (komunzki), ez da lurraldea, etab. Hizkuntzarekin, ordea, ez da egoten lotua, baizik bategina. Hizkuntza “komunikazio espazio” bat da, eta nazioa eta hizkuntza trenpu onean aurkitzen direnean, harreman politikoak, ekonomiko eta sozialak, lurraldearen esanahia, historia, espazio horren barruan hariltzen eta garatzen dira, horrek ematen die euren zentzua. Puntu berera gatoz berriro, ordea: gure nazioa eta hizkuntza ez daude osasun batera onean.

Quae cum ita sint, eusko/euskal nazio birrindua berregiteko fronte diferenteetan ahalegindu beharra badago, ekonomian eta sozialean egitekoak horien (patronal, sindikal) arduradunei utzirik, erakunde politikokoetako lana Alderdiei lagata, andre-gizonarte zibilak politikoki ere zenbat egin eta eragin lezakeen Kataluniak erakutsi digula ahazteke, hots, alor bakoitzari bere autonomia libre utzita, eta nik behintzat horietan guztietan zer eginik ez daukadala konfesatuz, esango nuke gure ataza –Jakinena eta UEUrena, esate baterako– pentsamendu independentea lantzean, gogoeta propioan egon litekeela: autokontzientziaren eraikuntzan, euskaldunaren (berr)egitean. Hein honetan, nazionalismoa argitu eta sendotzeko (ez sendatu!), garrantzi guztizkoa iruditzen zait bidaiatzea, etxetik irtetea: hots, hizkuntzak ikastea, literatura arrotzak irakurtzea, Estatu espainol edo frantseseko hesitura politiko eta kulturaletik kanpora ibiltzea, beste herri batzuetako kultura eta historia eta politikak ezagutzea.

IDENTITATEAREN INGURUAN

Identitatearen arazoan bi arazo dago: 1. identitatearen ukoarena, eta 2. euskal identitatearen eta unibertsaltasunaren ekibokoarena. Etsaiekin daukagun arazoa eta geure buruarekin daukaguna.

1. “Euskaldunak desagertu egin behar du” entzuten badut, alde batetik ulertzen dut gure errebindikazioak ez direla munduan euskaldunok zerbait partikularra garelako, gizon-emakumeak garelako baizik, beste herri guztiak bezala(ko)xe. Bestetik, “euskaldunak desagertu egin behar du”, “diskurtso unibertsala egin behar dugu” entzuten dudanean, lagunak dira horrela mintzo direnak eta miresten ditut, baina ni neu durduzatua geratzen naiz. Gaurko diskurtso espainolista ortodoxoenak, patriotismo konstituzionalak, horixe bera aldarrikatzen baitu: ez dago hiritarra besterik, euskaldunik ez dago. Euskalduna desagerrarazi egiten da hiritar “unibertsal” espainolean urtuta. (Nazio politikoaren kontu bera da).

PSEk nahi duena da “atender y responder a los problemas de la gente de la calle” dio Idoia Mendiak (Patxi Lopezen koplaren ritornelloa); ez du gura “enredarse en el debate identitario”. Identitatea kaleko jendeari interesatzen

zaion arazoa ez bada, zergatik kontrainteresatzen zaie hainbeste beraiei jende batzuk identitateaz interesatzea? Alegia, identitateak nazioa esan gura du eta nazioak subjektutasun politikoa: beraz, “eztabaida dezagun nahi duzun guztiaz, baina Espainia ez ukitu!” ulertu behar da. Espainia ukiezina da. PSOE eta beste progreak politika identitarioaz ez dira bestegatik erdeinuz mintzatzen. “Identitario” abertzaleen gaurko deskalifikatzaile bihurtu da. Zergatik? Identitaterik gabeko gizajenderik munduan ez baitago, tesi kontrarioaren burlarekin identitate “nazional” estatalaren defentsa disimulatzen da. Honezkero ezin dizute zuzenean esan “Espainiaren batasuna sakratua da”. Praktikarekin horixe adierazten ari dira ordea – aspaldidanik! Euren posizioaren espainolismo zaharmindua biluz ager ez dadin, ridikulizatu egiten da espainolismoaren oinarritzko dogma inork kuestionatzea (“nazio espainol bakarrarena”). Progre guztiek deritzotenez, Europa Batuan Estatua gainditua dago: gainditua, ordea, nonbait Estatua dago, Espainia ez (hori eternoa da!). Beti-beti hala izan da. Gaur, kaleko arazoan lehentasunagatik; atzo, fronte demokratiko antifrankistaren premiagatik; herenegun, iraultza proletarioaren larriagatik; euskal abertzaletasuna klerikala omen delako, abertzaletasun katalana burgesa omen delako, etc. Independentismoaren arrazoietako bat betiko “ez” horixe da hain zuzen. Independentziaren arrazoiak ez dira beste mundukoak; beste munduren batekoa “ez” horren arrazoi sekretuak dirudi. Behin iraultzailea, gero liberal demokratikoa, diskurtsoaren urgainean argudioak aldatzen dira, baina hondoan arrazoion arrazoi ezkutuak eterno eta aldaezin darrai. Autonomia, Konstituzioaren erreforma, federalismoa, edozein askabide politiko bilatzen hasi, eta hasieran beti Espainiarekin eteteari “ez”

higiezin hori dago. Euren programa integratzailea dela, etab. esango dizute. Baina heldu omen diren posizio horretara heltzeko, euren abiapuntu puntuan zergatik “ez” dogmatikoa dagoen beti, Rouco Varela eta Gotzainen Konferentzia Espainol txit liberal eta demokratikoekin kointzidituz hain zuzen, ez dute esaten. Zergatik? Beste aztergaitxo bat proposatuko nizueke, inor animatzen bada: eboluzioa aztertzea ideario sozialista espainola azkeneko ehun urtean nola joan den zeharo aldatuz ezer aldatu gabe euskal nazioaren arloan. XIX. mendearen buruan PSOE iraultzailea zen eta internazionalista: euskal nazionalismoa “ideología de campanario” zen haientzat. Errepublikan, frankismoan (XX. mendean) Iraultza eta internazionalismoa ahaztu eta demokrata bilakatu zen: demokraziaren alde batu egin behar zuten denek, ez zen borroka abertzale partikularisten ordua. XXI.ean, ahazturik Errepublika ere, Alderdi Sozialista monarkiko eta neoliberal bilakatu da. Mundu-ikuskera guztian hain erradikalki aldatu arren, betiko berbera papurrik aldatu gabe haren jarrera da euskal nazionalismoari buruz. Edo, zertxobait errukitu bide da: lehenago lehenbailehen euskararen akabera opa zuen; orain euskararentzat indioen erre-serba bat hobesten da. “El euskera es algo muy íntimo. Tú eliges la lengua en la que te expresas”. Mendeetan euskal nazioa eta euskara jipoitu eta hebain-hebaindu da hiltzoriraino, sozialistek kolaboratzen zutela, eta gaixoa ia bere kasa bizitzeko gauzaetua lurrean zerraldo utzi denean, *laissez faire* “liberal” bat onginahizko kontzesiotzat askiesten da. Konpromiso positiborik ez beraien aldetik. Euskararen aldeko diskriminazio positiboa ez da justizia sozialekoa, ez da gizarte apurtu honetan elkarbizitza normalizatzekeo ibilbidea, edo soil-soil ekologia kulturalakoa Europa superzi-

bilizatuaren altzoan hizkuntza mehatxatu bat (“gu guztio-na” omen!) salbatzeko, ezpabere maketoen eskuzabaltasun handia baizik ez: “ha habido una enorme generosidad por parte de los castellano-hablantes” (I. Mendia) – eguneroko bizitzan oso bestela esperimentatzen duguna. Emakumearen, homosexualen, etab., mendetako zapalketaren ondoren –oso arazo intimoak dira, ezta?–, horienganako liberalak izatea demokraten eskuzabaltasun handitzat ukan beharko dugula suposatzen dut, ez zor historiko eta obligazio politikoak. Inoiz ez da euskal nazioaren eta euskararen alde be-
raiek positiboki konprometitzeko ordua; Espainiaren alde bipilki konprometituak jardutekoa bai. Baina ez omen dira espainolistak.

Identitatearen arazo handienak, hala ere, geure burua-
rekin dauzkagunak dira. Kontzeptuarekin hasteko: zer da euskalduna? Zer da nazioa? Adierazteko identitate naziona-
la zertan datzan (kolektiboaren berdintasunean zein dife-
rentzian), hurbilpenak daude; definizio bat *stricto sensu* ka-
su guztientzako eta edozeinentzako berdin baliokoa, ez dut
ezagutzen. Bururakizun aipatuena Renanena da (“Une na-
tion est une âme, un principe spirituel... L’existence d’une
nation est –pardonnez-moi cette métaphore– un plébiscite
de tous les jours”). Deskribapen tradizionala Stalinen formu-
lazio ezaguneko da, austro-marxismoarena baino ez dena,
erreferentzia konkretuak, “objektiboak”, aipatuz (hizkuntza,
lurraldea, ekonomia, tradizio kultural amankomunak, his-
toria), neuri oraindik ere bera begitantzen baitzait baliaga-
riena. Hurbilketa formal soilak hobets litezke, edukiak oro
alboratuz: “nazioa nahia da”; edo “Nazioa zer da funtsean?
Komunikazio espazio bat...” (J. Sarrionandia). Honela, ob-
jekzio pila bat ekiditen da. Bakarrik, UEUren ikastaro bat,

edo konferentzi sala hauxe, komunikazio espazioak dira halaber. Kontzeptu hain orokor abstraktuak baditu abantaila batzuk, Sarrionandiak seinalatzen ditu (“Gure politikaren bilakaeraz inpresio eta iritzi batzuk”, 2015), h. d., alderdi positibo dinamikoa nabarmentzen du errealitate nazional linguistiko, kultural, politikoan. Baina Estatu eta nazioa bereizteko, adibidez, ez digu balio. Dena den, arazoa ez da definizioa, ez dago definizio bakar azkenbetikorik. Azkenean, nazioa zer den, praktikan ikusten da: praktikan ikusten da zer zen Irlanda Nazioa askapen borrokan eta zer den Irlanda Nazioa gaur. Praktikan ikusi behar dugu zer den “euskal nazioa” gaur. Nazioa zertan datzan, esan izan da nazio bakoitzak berak definitzen duela, bere burua zertan datzan praxiarekin. (“Nazioak, berak xedatzen du bere sorrerakoan, zeintzu ezaugarrik xedatzen duten bera”: W. Böckenförde, “Die Nation. Identität in Differenz”, in: *Universitas* 50, 10, 1995, 978). Jardunaldi honetan horrelako zerbaiten bila dihardugula esan genezake. Joan den mendeko 60. urteetan nazioaren kontzeptu bat landu da. Ez dakit beste bat, baina dudarik gabe beste modu batera, landu beharko du zuen belaunaldiak.

Gure belaunaldira etorritz: zer da euskalduna izatea? Albo batera utzirik hemengoa bai, baina bere burua euskalduntzat edo baskotzat eduki nahi ez duen jendea, zeini esan geniezaioke euskalduna edo baskoa? Bestela esan, zein zentzu dauka norbaitek bere burua euskalduntzat edo baskotzat edukitzeak? *Euskalduna* euskaraz dakiena bakarrik eta dakien oro da (Pragako filologoa, adibidez), edo bere biziera egunerokoan erabiltzen duena (zenbat?)...? *Baskoa* horrela izendaturiko lurraldeetako haurrak oro dira, eta horiek bakarrik? Nafarrak zer? (Baina Etxeparek Baskoak aipatuz, nik

uste nafarrak zituela oroz gain gogoan: “Baskoak orok pre-
ziazten...”). Eta Erdi Aroz gero gutxienez euskaldunak ez
ziren eta orain ere ez diren lurraldeak nola dira baskoak?...
[Hitzaldi hau eman eta gero ezagutu dut I. Iztueta, *Cultura
vasca vs Euskal kultura*, 2015. Liburu bikain-bikain osoa ira-
kurtzekoa; euskal/vasco terminologiako diferentzian puntu-
rako, 329-336 bereziki].

Kontzeptuok ekibokoak badira, ez ekibokorik eta ez
ekibokaziorik dagoen puntutik has gaitezke: Sarrionandia
euskalduna da (seguruenik egun osoan erdaraz mintzo den
arren), euskal idazlea da, euskal naziokoa da; “vasco” da eta
“escritor vasco” da. Ordea Savater, “filósofo vasco” irakurri
ohi dugu, “euskal filosofoa” da? Ohiturik gauden moduan,
“euskal” hori inolako dudarik gabe ukatu egingo genioke;
“filósofo vasco”, seguru asko onartu. Filosofo kendu eta
“escritor” jarriz gero –“escritor vasco”–, dudatan hasiko gi-
nateke berriro. Izan ere, honelako bitxikeriak aterako litzaiz-
kiguke: “es un escritor vasco, que si le das a leer un texto
escrito en vasco, no entiende ni papa”. Aldiz “es un vasco
escritor” errazago onartuko genioke, erabilerako ohiturei ja-
rraiki beti. Zelan da Unamuno “escritor vasco” baina ez da
sartzen “literatura vasca”n?

Guk, erdaraz pentsatu eta euskaraz esan egiten ez dugu-
nean ere, askotan, erdaraz ere balio lezaketen formulazioak
bilatzen ditugu euskaraz. Baina euskaldun/basko/vasco
kontzeptu(et)an barruti semantikoak ez dira balioberdinak,
bata bestearen itzulpen doiak ez dira, esanahiek irrist egiten
dute. “Hombres vascos” eta “montes vascos” dago; mendi
euskaldunik ez dago (metaforan ez bada). Gure amarentzat
euskaraz ez zekiena makettoa zen, zortzi “euskal deitura”
(zer da hori?) garbi-garbi izan ala ez. (Behin eta berriro en-

tzun izan dudanaren kontrara, maketo hitzak haren ahoan ez zuen xenofobia eta ez arrazismo kutsurik batere. Ez omen da politikoki korrektua eta orain nahiago dugu hitza ahaztu, eta ados nago). Baina ohartarazi gura dudana zera da: konnotazio arrazial edo erdeinuzko edo politiko inolakorik gabe, esanahi politiko eta arrazistan hispano-maketoak erdeinatzen zituzten bilbotar edo donostiar ez euskaldunak gure amarentzat maketoak zirela, berdin zen Euskal Herri geografikoan jaiok izan ala ez, eta geure familiakoak bazi-
ren ere. Hau da, gure ama zena bezalako euskaldun hutsak, motibazio politiko arrastorik gabe pentsatu eta lexikoan konpontxorik bilatu beharrik sentitzen ez duenak, oso garbi bereizi dituela bi munduak: euskalduna dago, beraren komunitatekoa, eta erdalduna dago; berarekin euskaraz mintzo dena dago eta arrotza dago, h. d., berak dakien hizkuntza bakarrean hizkuntzazko komunikaziorik harekin posible ez duena. Elebakarrentzat hizkuntzak garbi eta seguru bereizten ditu komunitateak.

Euskalduna euskarak egiten du. Euskara (euskaldunen) komunitatea da. Euskararen erkidegoak dago euskalduna, eta euskaldunek dagite euskal erkidegoa. Hori da edozein naziotan normala, ez dago beste misteriorik.

Problemaren giltzara etorritz: Tuter a Euskal Herria da?, euskalduna da?, baskoa da?, euskal nazioa da? (Hasteko, J. Zabalo-Tx. Mateos gomendatuko nizueke: “Euskara euskal nazioaren funtsa periferia erdaldunean ere?”), in: *Jakin* 146/147, 2005, 165-182. ID et ID., “Estatuaz, herritartasunaz eta nazio-identitateaz”, *Euskal Estatuari bidea zabal-tzen. Herritartasuna eta kultura*, 2012, 13-26).

Badakit, fikzio bat da gure amarentzat balio zuenak guretzat ere balio behar duela suposatzea. Dagoeneko gu ez gara euskaldun hutsak (euskaldun elebarririk ozta-ozta geratzen da). Gu gure kontzeptuetan motibazio politiko, antropologiko edo bestelakorik inplikatu gabe jardun gaitzkeela ez da egia (mundu politizatuegian bizi gara horretarako). Erantzunak formulatzen ikuspuntu ezberdinetatik (historiko, antropologiko, politiko...) eta interes ezberdinekin has gaitzkeela ere badakigu, eta kontzeptuaketak erlatiboak direla. Kontzeptualizazio batek edo bestek ez digu errealitatea aldatuko; errealitatea hobekiago ala gaizkiago atzematen lagundu bai apika, eta hobekiago atzemanen haren gainean eragiteko bidean jarri. Beraz, eszeptizismo pixka batez itaunduta: zein litzateke gaur eta guretzat kontzeptu egokiena?

Identitatea edo nortasuna lehenbizi pertsonala da eta bat da, baina elementu ezberdin askoz osatua: plurala. Pertsonala den bezainbatean, naturalki familia batean, hizkuntz komunitate batean, nazio batean txertatua ematen da; artifizialki talde profesional batean edo bestean, Estatu batean edo bestean egon liteke txertatua. Plurala bezainbatean, komunitate ezberdinetako kide izan liteke eta izan ohi da edonor (komunitate nazionalaz gain): euskaltzaleen komunitatea, homosexualena, feministena, mendi, rock, tangozaleena, Chat edo Youtube community.

Tutera Euskal Herria da? Identitate nazionalaren kapituluari ni neu, tradizioari atxiki eta hizkuntzatik abiatzen naiz (euskararen komunitate zapartatutik, euskal komunitate elebarraren suposizioa honezkero irrealizat joz), eta behin-behineko erantzun hau emango nuke: bai eta ez. Situazio nahasietan erantzuna ezin baita bai ala ez bakuna izan. Bate-

tik, nik ezin dut nire naziokoa kontsideratu nire hizkuntzan mintzatu eta tutik ulertzen ez didana, berdin zait politikoki nola pentsatzen duen. (Nahiz eta hori ere ematen den: juduen artean, adibidez – “hautsitako nazioa” hori ere!). Bestalde, ezin ditut berdindu, a) ulertzen ez, baina ulertu nahiko nindukeena, eta b) ulertu nahi ere ez nauena neure hizkuntzan. Edo: a) euskararen komunitatearekin enpatizatzen duena eta horrekin solidario sentitzen dena (ikastolak bultzatuz edo haurrak ikastolara bidaliz, adibidez), eta b) hori bost axola zaiona edo suntsitua ikusi nahiko lukeena. Lehenengoaren kasuan (a) bi ebidentzia dago: 1) ez nauela ulertzen euskal hiztun gisa, eta 2) nirekin dagoela komunitate gisa (hizkuntza bat komunitate bat da, ez gramatika bat eta hiztegi bat). Honek datu biei justizia egingo dien kontzeptuaketa eskatzen du. Labur: ezin dut ez aintzat hartu haren autokontzientzia. Esan gura du nazioaren eta hizkuntzaren identifikazio estu-estu eta zurrinak ez duela funtzionatzen; norma (nazioa berdin hizkuntza) kasu anormalean ezin dela mekanikoki aplikatu (horratik ez dizu balio orientatibo printzipiozkoa galtzen). Beharbada ez zen soluziorik distiratsue-
na, baina gure belaunaldian onartua zegoen konponbidea *Euskadi* (EH geografikoa) eta *Euskal Herri* (euskararen herria) bereizketan zetzan. Eta “Euskotarren aberria Euskadi da” aldarrikatzen zen: euskotarrena; ez euskaldunena.

Inoiz ez dut ulertu Euskadi berba zergatik baztertu du-
zuen, askok jasan ere ezin duzuen (EAJ/PNVrena omen dela eta! – Hori eta beste gauza asko zor diogu PNVri). Guretzat (frankismoan) Euskal Herria esatea zilegizkoa zen; Euskadi esatea, ez. Klandestinitatea eta borroka sinbolizatzen zuena Euskadi zen. “Euskal Herria” karlista zen, edo izen arol apolitikoa; Euskadi, abertzalea. Ez da hain aspaldi

Euskal Herria esaten zutenak Euskadi esaten zutenei tiroka ibili direla frontean, edo fusilatzen hormaren kontra gerra zibilean. Gomuta Lauaxetaren azken garrasia. Euskadiren izenarekin sutu da gure belaunaldiaren kontzientziatzea eta matxinatzea, eta hurrengo belaunaldi guztiarena berdin. Gora Euskadi! egin da oihu Errepublikan, lubakietan, klandestinitatean. ETA Euskadi ta Askatasuna da. Jendea Euskadigatik hil da, eta hil du. Gure historia hori da. Ez dut ulertzen, hortaz, memoria historikoa goratik nola errebindikatzen den, eta memoria hurbilena ahaztuz hasi behar dugun. Ez dut ikusten, hizkuntzak (euskarak) parterik ez duenerako orainagoan asmatu diren soluzioak, kirol ekipoentzat esaterako (“euskal herritarrak” eta), egokiagoak eta errazagoak direnik behialako “eusko” eta “euskotar” (Eusko Lurra, Eusko Jaurlaritza – Eusko Gudariak Gara) edo “euskaditar”ak baino, hauek ere oso dotoreak ez izan arren. Batzuen arrazoa Euskadi baztertzeko Nafarroaren errebindikazioa ei da. Ni neu prest nago zenbait adieratan denok nafarrak garelako esateko eta Nafarroa izango garen egunari itxaroteko. Baina gaur-gaurkoz –hizkerak bere autonomia dizu ideologia politikoetatik– ez dut uste inork esango duenik Sarrionandia idazle nafarra dela edo Bilbao Athletic eta Aviron Bayonnais Nafarroako ekipoak. Gaur-gaurkoz Nafarroak ez euskara eta ez Euskal Herria ordeztzen du. Beraz, nire galdera: Euskadi/Euskal Herria terminologia baztertuz, haien tokian EH (soilik, edo EH plus Nafarroa) nagusiaraziz, zer irabazi da?, zer galdu da? Izena ere ezin dugu adostu? (Izena baino sinbolo inportanteagorik ez dago komunitate baten identitatean). Modernitateaz gero gure identitatearen kontzeptuaketa berez nahiko lardaskatua zegoen, ez genuke enpeinatu behar gehiago lardasten.

Handik hara, bada, Tuter a Euskal Herria da? Geure kontzeptuaketan gehiegi sinetsiak ez izatea komeni da, baina nik neuretzat erantzun zaharra hobesten jarraituko nuke: Tuter a Euskadi da; ez da Euskal Herria, Euskal Herria izan dadila gustatuko litzaigukeena baizik. Baina Bilbo, Donostia eta kasik Euskadi guztiarekin ez da oso bestela: ez da Euskal Herria; izan zen Euskal Herriaren hondakina da, birreraiki nahi duguna. Batetik Botereen txikizioak, bestetik bere barne eboluzioak (Euskal Herriak bere-bere egiten asmatu ez duen modernitateak), horretaraxe ekarria dago engoitik euskal nazioa. Nazio hautsia gara. Gandiagarekin esateko, ez gara iristen izatera. Txakolin mikatz haren antzekoa da Euskal Herria nazio gisa (kontuan har, txakolina ez zela oso edangarria azken urteotan hobetu duten arte): “ardo pobrea da, ardo nahi lukeena, baina beste ardoen artean ardo ez dena, baina ardo dena halaz ere” (Txakolinaren ospakuntza). “Nahi ta ezina du bere/ tasun bereiziena”. Oroit Salvatore Mitxele-naren *Bizi nai*. Nahiarekin komunitate tipo baten deskribapenaren esparrutik ekintzaren eta politikaren esparrura pasatzen gara. Nahia, horrela, kontzeptuarentzat ere bereizgarri bihurtzen da: nahiak euskotar bihurtzen du norbait, ez du bihurtzen euskaldun. Ez-nahiak bihurtzen du ez-euskotar, ez-euskaditar (edo euskotar administratibo, geografikoa soilik), nahiz mintzoz euskalduna izan. Hau da, nahiarekin politikaren mailan ari gara mugitzen.

Identitate nazionala bi eratara uler daiteke, hortaz; ez dago gaizki bi termino egotea. Eusko/Euskadi kontzeptu politiko-territoriala da, Euskal Herria ez. Eusko/euskotar-ek, euskaradunaren berdina izan gabe, euskararekiko erreferentzia gorde egiten du, identitate nazionalaren sustrai eta jatorrizko esanahi bezala, eta euskalduna ez den herritarra ez

du “euskal herritar” bihurtzen (herritar euskalduna ez den “euskal herri”terra). Azken batean, hau antzina-antzinadanik euskaraz mintzo zen (den) eskualdea izateagatik eta horri ageriko edo ezkutuko erreferentziaz da, ez beste ezergatik, mapetan zoko honi Vasconia/Euskadi/País Vasco baderitzo eta munduan oraindik eusko/baskoez deus hitz egiten bada eta egun nazionalismo eta antinazionalismo baskorik bada-go. Gure identitatearen izendaera guztiak, historian zehar, hizkuntzaren erreferentzian sustraitzen dira.

KASKANTEKO EUSKAL HERRITARRAZ

Nola esan daiteke Tuteran edo Kaskanteko biztanleez (euskara gabekoez, ulertzen da) euskal herritarrak direla?, gonbidatu nauena itaun bihurri horrekin gonbidatu nau ikastaro honetan mintzatzera... Nik nola erantzun nukeen, konplikatu da eta sinplea aldi berean. Baina bihoaz ohartu batzuk aurretik.

(Hitzaldi hau eman eta gero agertua da niri jarritako galderari erantzun bat ezin zuzenago apailatua, informazioz bibrila beti bezala: J. M. Esparza Zabalegi, “Eneko: Tudela es Euskal Herria”, in: *Gara* 2015-09-16. Beste ikuspegi batek: T. Urzainqui Mina, “Donostia y Tuteran siempre navarras”, in: *Noticias de Navarra* 2015-09-27).

Identitatea ez da, begien kolorea bezala edo, genetiko. Ez dakargu odolean. Kulturala da. Eraiki egiten dugu; inguru familiar eta kulturalarekin eztabaida etengabean eraiki ere, bizialdi osoan, eta geure identitateaz duda-mudan ibili behar izatea izaten da normalena, segurantzia gehiegi gabe geure buruan. Inguru material nahiz kulturalarekin gure hartu eta emanetan pasiboago edo aktiboago izan gaitzke, alde batera edo bestera joenezake. Identitatea beti soziala da, eta gerta gaitzke ingurugiroaren biktima. Esaterako,

etxean haurtzaro erabat euskalduna izan duzun arren, euskara dialekto kaskar bat baino ez ei da, eta eskolan eta kallean zigortua dago (zeu ere zigortu zaituzte). Euskaldunei buruz entzuten duzun guztia burlazkoa da. Euskal gaiekiko edozein interes politikieriatzat eta txikikeriazaleen apetatztat erdeinatzen da. Zuk holako txikikerien gainetik ibili behar duzu. Gaztelania zein ederra eta historia espainola munduan zein paregabea den ikasten egiten dituzu eginahalak, eta arrakasta txikiren batzuen asebetetxoak ere gozatu dituzu (zure poesiaren bat gaztelaniaz gozesten du maisuak eskolaren aurrean, esaterako). Ez dakit Don Pelayoren edo Guzmán El Buenoren istorioekin hunkiturik gelditu izan zara behin eta berriro. In summa: zure poztasuntxo eta harrokeriatxoak, zure heroiak, emozioak, espainolak dira. “Baskoak” honezkero zuretzat “besteak” dira, zu ez: gerra zibilean boltxebikeekin joan omen zirenak, Jainkoaren eta erlijioaren etsaiekin; elizen kiskaltzaile eta milaka fraide eta mojaren sarraskitzaile supergaiztoak izan omen ziren gorriak, etab., urrutiko jenderen batzuk; eta eskolako jolas orduetan euren artean oraindik euskaraz mintzatzen diren bakanak (debekatua egon arren), gaztelaniarekin arazoak dituztelako notarik onenak ere izaten ez dituztenak. Psikologo sozialentzat utz genezake, nola etortzen den Aizkorondoko haur euskaldun-euskalduna bera ez-euskalduna sentitzera eta euskalduna ez izan nahi izatera, euskaldunak mespretxatzera; identitate inposatua beretzera. Ez da nire moduko batzuen biografien kontu hutsa. Oroit XIX eta XX. mendeen itzulian egon den euskara eta euskal kulturaren isekazko kanpaina, eta nola zentro industrialetara jaitsi den baserritar euskaldun asko bere “euskalduntasun arloteaz” lotsatu den, eta autogorrotoan txingartu eta espainolizatu, modernizatzeko eta “internazionalizatzeko” grinaz.

Edo, eskuinean, burgesia eta intelligentsia tradizionalistaren zati handi bat, karlistak adibidez –hemen Nafarroan nabarmena da–, euskaltzale klasikoa izatetik arras antieuskaldun bihurtuz nola joan den Errepublika eta Gurutzada Santuaren inguruan, eta gero gaur arte. Identitatea –hots, zerekin identifikatzen garen– indibiduala bezala kolektiboa, historikoa eta aldagarria da.

Identitatearen arazoa arazo izan –politikoa–, kontzeptuak argitu nahi izaten ez direlako bakarrik da. Errealitate ilun misteriozkoren bat balitz bezala aipatzen delako beti (erromantiko irrazionalei-eta soilik interesatzen zaiena), eta ez gauzarik sinpleena eta arruntena, eta nobleena ere bai, gizakiak ez daukalako ezer nobleagorik bere kontzientzia baino. Identitatea logikoki nor edo zeren batek norbere buruarekin egiten duen berdintasuna da (berdintasun erlazioa): a da a; ni ni naiz, hi hi haiz. Psikologiko eta sozialki, autokontzientzia da, norbere buruarekiko iritzia, neu zer naitzen uste dudana, uste edo iritzi hori beti komunitatearekin feedbackean hozitzen dela; eta, beraz, kondizio historikoen eta sozialek kondizionatua, eta kondizio horiei erantzuna. Naizenaren kontzientzia; eta naizena izatea daragiten kondizioen kontzientzia, hortaz. (Kondizio proletarioetan diharduen langile bat, identitate proletarioaren kontzientziarik ez duena, ez da proletarioa, esango du Marxek. Alienatua da). Identitatearen arazoa autokontzientziaren arazoa baizik ez da, nortasunaren arazo esentziala edozeinentzat – zerbait bitxia, zenbait politikok autokontzientzia eta autokontzientziaren arazo ahalik gutxieneko bozemaileak nahiago izatea da, dirudienez.

Esan, inoren identitatea bere baitan esateko modu zuzeneko bakarra izendapena da: hori Maria da (ni berdin ni,

Maria berdin Maria). Izendapenak ez du izendatuari buruz deus esaten, baina esate ororen presupostua da; zerbait eriaz seinalatzea bestetsu (“horko zer hori”). Horko nor hori bere baitan nor/zer den esateko, predikatu logikoki posibleak berez zenbaezinak lirateke (oroit Leibniz); esan gura baita, unibertsoan printzipioz dena erlaziona daiteke denarekin, eta denok gara nolabait dena. Elkarren ezagutzan erabiltzen ditugunak, ordea, erlazio arruntak izaten dira, hurbileko erreferentziak: halako eta halakoren alaba. Aldiz, hori bera Berlinen norbaiti aurkeztea tokatzen bada, ingurumaria diferentea da, eta: nafarra da, esango dugu. Edo: musika ikaslea da, trotskista da. Inoren identitatea beti dimentsioanitz da eta, goian esan bezala, esentzia platoniko bat ez delakoxe, perspektiba ezberdinetatik hurbil gakizkioke, eta beti partzialki: arauz zein den aintzat hartzeko testuingurua, erreferentzia sistema ezberdinez baliatuko gara gure hurbilketan (familia, sexua, lanbidea, joera politikoa, etab. – hala ere, bakoitzak identitate asko edo identitate diferenteak dauzkala esatea zentzurik gabeko formulazioa da, errigoroski). Zailagoa testuinguru politikoan mintzo garenean gertatzen da, politikaren munduan erreferentzia oso diferenteak erabil litezke. Eman dezagun Euskal Herritar sentitzeak, edo inor Euskal Herritartzat edukitzeak, osagai edo konnotazio linguistikoak, kulturalak, historikoak, folklorikoak, etab., dituela (ez euskaraz mintzatzea bakarrik), edo Alderdien arabera ideologiko politikoak. Jimeno Juriok folkloreaken azterketan erreparatzen zuen Erriberaren baskoitasuna. J. Beriainek, Ortiz-Osésen ildoan, inkontziente arkaiko matriarkalistaren (kasu: ez matriarkal) partaidetzan atzeman ahal uste du identitate amankomuna (*La identidad colectiva: vascos y navarros*, 1998). Identitate komunitarioak beti barnebiltzen ditu mi-

la modutako antzak eta diferentziak. Azkenik, diferentea da norberak bere barrutik duen autoidentitatearen pertzepzioa eta kanpotik besteek dutena. Diferentea da tuterarrak edo kaskantearrak berak nola senti lezakeen (edo ez) bere burua Euskal Herritar, eta nik nola eduki nezakeen bera halakotzat (edo ez). Beraz, tuterar edo kaskantearra nola har daitekeen Euskal Herritartzat, ezin da egon erantzun bakarra.

Ortiz-Osés eta Beriainen labirinto hermeneutikoetan menturatu gabe: tuterarra –edo kaskantearra– nafarra da eta, eman dezagun, nafarra sentitzen da osoki, ez geografikoki soilik. Horrekin erreferentzien (politiko, soziologiko, antropologiko...) sistema bat bere buruaren kokalekutzat baisten du. Sistema osoaren bila luzatu gabe (musikaraino-eta, eraman gintzake): Nafarroarekin identifikatzen den heinean, egitura politiko-administratibo batekin bategiten du adibidez. Hala Iruñearekin lotua dago (sare politiko batzuekin eta horietan bilbaturiko ideologiek), eta Leitzarekin ere bai (euskararekin, hortaz). Iruñean nafarren euskaltasunaren aldarria ikusiko du Foruen Monumentuan brontzezko plaketako batean: “Gu gaurko euskaldunok...”. Mapan Donibane Garazi eta Donapaleu frantsesak Tuterara eta Kaskante bezain Nafarroa jatorra direla ikus/ikasiko du. Nafarroa ez espainol bat dagoela alegia. Eta inolako dudarik gabe Euskal Herria direla. Historia batekin bategiten du, eta –baskoien izendapena eta Euskal Herria izena historian lehenbizi Nafarroan agertu zirela zergatik jakin berak ez badauka ere– Orreaga, Noain, Mendigorriarekin topatuko da. Nafarroaren konkistarekin (1512 eta 1516an Tuterara biziki “independentista” bezala nabarmendu da), lau probintzien karlistadekin. Espoz y Mina, Zumalakarregi. Gamazada. Monteagudoko koplak (“Vivan las cuatro provincias/ que siempre han estado uni-

das...”), etab. Horrek denak ez du ezer erabakiko: erabaki, berak egin beharko du. Eta euskotar edo baskoa zentzu politikoan bai edo ez izan, autokontzientziak, erabakiak, nahiak erabakiko du, politikan dena bezala. Badakigu, historia eskaintza bat da, ez obligazio bat. Kaskantekoa nik euskotarizat badut (nahiz ez abertzalea edo euskalduna izan), ez du esan gura berak ere euskotarra sentitu behar duela derrigor. Libre izanen da Alderdi-politikoki alde batera zein bestera jotzeko. Historiak ez dio ezer probatuko. Baina bai go-goetari hamaika erreferentzia ireki Euskal Herriarenganako, gure historian ohiko kontraesanekin: beaumontarrak, agarraumontarrak; San Frantses Xabierkoa eta San Inazio Loiola-koa; Estatutuaren gatazkak Errepublikan, 36ko gerra zibila, Erriberak bereziki nozitu dituen horroreekin. Hots, nafar gisa historiak dramatikoki Euskal Herritarra agerraraziko du. Elizetako artean, literaturan (Navarro Villoslada, Antoñana), folkloean, kiroltan (Tuteran pilota txapelketak jokatzen dira), Nafarroan nonahi kausituko dizu Euskal Herria. Ez dira gutxi zioak, kaskantearrak, euskalduna izan gabe, bere burua Euskal Herritartzat jo ahal izateko –hala nahi badu–, hori egiteko moduak Pio Barojaren eta Julio Caro Barojaren manera etno-kulturaletik Victor Praderaren integrismo katoliko espainolistara edo abertzaletasun petora joan badaitezke ere, euskal herritartasunaren uko agresiboaren posibilitatea baztertzeke, berrikiago ikusten den legez. Berez ez du barakaldotar edo irundarraren kasua baino oso bestelakoa ematen.

Iraganak identifikazio gune anitz eskaintzen badu, ezein identifikazio behartu gabe, identifikazio sendoenak –ikuspegi politikoa denaz bezainbatean batik bat– etorkizunari begirakoak izaten dira, eta horri buruz postura hartzeko ere Kaskantekoa eta Amezketakoa abelera berdintsuan aurkitzen

dira. Erabaki pertsonalaren kontua da (kolektiboarena puntu bateraino). Zein etorkizun nahi dut Europan Kaskante/Nafarroarentzat? Identitate pertsonala bezala kolektiboa (nazionala) jada ez denaz eta oraindik ez denaz osatzen da, hots, libertatearen gain oinarritzen da: izandakoaren memoria eta izatekoaren asmoa, eta bienganako orain dugun eraspena, identitatea hori da. Oroipena eta proiektua gara, eta biak hautatu egiten ditugu, eraiki. Geure buruaren egileak gara. Hautua batzuentzat errazago egoten da, beste batzuentzat nekezago. Kaskantearra geografia historikoaren zentzuan Euskal Herritarra da, baina horrek oso gutxi esan gura du: berak hautu beharbada ez erraz hori positiboki egiten badu bakarrik izango da egiaz Euskadi/Euskal Herritarra.

Identitatearen hautua baiespenez eta ukoz zedarritzen da. Deliberazioaz, nahiaz (komunitatearekin hartu-emanen beti). Gure belaunaldiarentzat berebiziki erabakigarria ukoa izan da. Batetik, Euskal Herriko historiaren ukoa: Elkano, etab., morrontza handiaren historia txikia. Bestetik, historia inperial nazional-katolikoaren ukoa: Covadongako Ama Birjina, ‘Santiago y cierra España’, ‘Isabel y Fernando’, Ameriken ebanjelizazioa, okzidente kristauaren salbazioa boltxebismotik... Espainia eternoaren ukoa. Zuen belaunaldiarentzat baiespenaren ordua da, etorkizun arras berri bat imajinatzeko Euskal Herri/Euskadirentzat (nazioarentzat eta ez probintzientzat), Kaskantetik Baiona eta Karrantzara.

III.
EUSKAL NAZIOAREN
ETORKIZUNAZ

Arazoa, bai, politikoa da.

Nazioa berez ez da politikoa, baina politika beti inplikutzen eta konplikatzen duen errealitatea bai. Amazoniako oihanetan bat-batean nazio berri bat agertzen bada –tribu txiki bat, adibidez–, harekin nola jokatu deliberatu beharko du Brasilgo Estatuak. Beharbada jaramonik ez egitea erabakiko du, edo bere egitura politiko eta sozialetan funditzea, edo hark bere nortasuna zain dezan laguntzea akaso. Tribuak berak ere integratu, asimilatu, diferentziari eutsi, basoan berriro ezkutatu, erabaki egin beharko du zer egin Estatuarenganako. Politikoki konprometituak biak geratzen dira, batak bestea aintzat ez hartzea ere konprometitzeko modu bat baitute.

Munduan beti egon dira nazioak (edo nazioaren bezperako elkargotxoak), eta inperioen ondoren Estatuak sortu direlarik (hauek ez dira nazioen produktua), hasieratik beretik Estatu eta nazioa beti daude konprometituak elkarrekiko.

Barkatuko didazue insistitzen jarraitzen badut: gizon-emakume izatea bezalaxe, gutako bakoitzaren identitate pertsonala bezalaxe, identitate nazionala prepolitikoa da, normalean (edo beti) politizatu eta etortzen den arren. Politikaren eraginpean dago, baina ez da politikaren produktua.

Lehenagokoa da politika baino (lehenagotasun logiko nahiz ontikoan, ez derrigor denborazkoan). Horregatik eduki ahal ditu esijentziak eta “eskubideak” edozein politikarekiko, edozein Estaturekiko. Eta hau (oinarriztapen razional erlatibokoa izanik ere) ez da posizio esentzialista, fundamentala baizik, politikaren absolutizazioari eta, ondorioz, Estatu Boterearen arbitrariedade totalari à la Hegel, edo à la Stalin, hesia jartzeko. Ez gara Estatuaren mirabeak, Estatuak izan behar du gure zerbitzaria.

POLITIKAN, POLITIKAN BEZALA

Gure asmo politikoen jomuga burujabetasuna bada, bistan dago hori ez dugula lortuko euskaldunok bakarrik, are gutxiago euskaltzaleok bakarrik, eta areenik gutxiago (gaurko) abertzaleok bakarrik. Hori gure inguruan beti jakin izan dela esango nuke. Hala ere, orain bereziki goratik bozgoratzeko eta kasik errebindikazio moduan aldarrikatzeko seguru asko arrazoirik ez da falta. Estatutua bai ala ez, edo Iraultza zela eta herri borroka zela, azken urteotan independentzia asko aipatu da, baina hura eskuratzeko bidean zein urrats emanek joan, oso gutxi deliberatu da (bata bestearenganako salaketak eta irainak utzita), dialogo eran eta jendaurrean behintzat. Hutsunea batez ere politikoa da: nola jokatu politikoki, independentzia nahi bada.

Kultura edo filosofia aldetik gehiago hausnartu da (frankismoan, eta postfrankismoan ere, jende askorentzat ozta-ozta izan delako posible besterik ezer egitea). Bilakabidea laburki gomutatuz: gerraostean Krutwig-Txillardegiren belaualdiak, euskararen lehentasuna erremarkatu duenean, nazioa eta abertzaletasuna birdefinitzen zuen, ez zuzenean politika nazionala (ezin da ahaztu politikarik ez zela posible, klandestinoa ez bazen). Horrekin, alde batetik nazioaren ikusmolde

tradizionalaren aurka zihoan (arraza, abizen jator, Rh odol, etab.), euskararen ardura eskasegia aurpegiaritzen baitzio-
ten horri. Bestetik, borroka nazionalaren Irlanda bezalako
kasuen aurka (ik. “Irlanderaren paraderoa”, *Jakin* 1, 1977),
edo independentzia lortzen ari ziren baina askatasuna erdietsi
eta gero hizkuntza kolonialaren nagusitasuna kontsaktatzen
zuten Afrika eta Asiako Estatu berrien ereduaren aurka (ik.,
Txillardegik euskaratua, A. Memmi, *Kolonizatuaren ezagu-
garria*, *Jakin* 1974). Erreakzio hori ez zen (nazioaren) teoria
hutsa: Euskal Herriko eta nazioarteko esperientzia konkretuei
erantzuna zen eta etxean praxi erreal bat zimentatzen zuen:
ikastolen mugimendua, euskaltzaletasunaren berpizkun-
de gaztea, alfabetatze kanpainak, euskararen normalizazioa.
Bestaldetik, ezin da ahaztu, euskararen garrantzia nazioaren
kontzeptuan enfatizatu dutenok izan direla, aldi berean, aber-
tzaletasuna existentzialismoaren, sozialismoaren, marxismoa-
ren, erlijioaren kritikaren, etab., hots, euskararen jendartea
eta Euskadi osoa garaikidetzearen bideetatik abiarazi dutenak:
idea sozial eta politiko berrietatik pentsamenduaren mailan,
praxi militar, politiko, sindikal, kultural berrietatik ekintzaren
barrutietan.

Askotxo sinplifikatzea litzateke, edonola ere, belaunaldi
osoarentzat Krutwig eta Txillardegirekin bakarrik eta horien
idea politikoeekin geratzea. Gainera, Krutwig eta Txillardegi
ere ez dira pentsamendu bat berekoak. Pasa dizkidaten orriak
irakurri, azkenaldiko artikuluak gerraosteko abertzaletasun
berriari independentismo berriago bat kontrajartzen diotenak,
eta egia da gure abertzaletasuna batez ere euskaltzaletasuna
izan dela, baina hor esaten den moduan izan ote den, ez na-
go seguru. Batzuetan suposatzen den jarrera euskaltzale eta
politikoaren simetria, batik bat euskara/abertzaletasun/hiz-

kuntz erlatibismo berdinketa, inoiz ez da egon gure artean. Ikastolen edo euskararen batasunaren inguruan mugitu den jendeari behatzen badiogu, kointzidentzia hagitzez handiagoa sumatuko dugu euskarari buruzko pentsaeran hizkuntza nazional gisa (horregatik batu eta normalizatu beharrekoa), haien ideia politikoetan baino. Pentsaera diferentetako jendea egon da Batuaren kontra: batzuk abertzaleak izan dira (EAJ), besteren batzuk kulturalistak à la Caro Baroja, beste batzuk regionalista sanoak. Batasunaren aldeko borrokan, Villasante batek inoiz ez du lotu euskara independentziarekin, ezta beste inolako tesi politikorekin ere (instituzioek zor duten euskararenganako begirunea eta laguntza itxaroteko ez bada). Haren antzera, Juan San Martinen berebiziko ahalegina euskararen defentsan eta sustapenean, neutraltasun politiko apropos bilaturiko batean bezala mugitu da. Karlos Santamaria abertzalea (EAJ/EA) baina federalista zen; hizkuntz erlatibista antzeko postura defendatzen zuen. Koldo Mitxelena (EAJ) independentista izango zen, pentsatzen dut; erlatibismo linguistikoa ez zizun begi onez ikusten. Haranburu Altuna euskara hizkuntza nazional gisa finkatu eta normalizatzearen abokatu suharra zen. Independentista bizar doa garai haietan (haizeak hortik jotzen zuen orduan), K. Mitxelenari berari aurpegiratzerraino “euskaldunok geure gisara eta bakean geure bidea ibiltzeko dugun eskubidearen” aldezle aski deklaratu ez agertzea jendaurrean. Hizkuntza eta nazioa edo hizkuntza eta mundu-ikuskerara lotzeko tesien konfesoretzat, aldiz, ez nuke aitortuko, guztiz kontrarioa baizik (geroago behintzat), estrukturalismoaren modari guztiz atxikia zen arren. Lafitte, Xarriton, Aresti, Gotzon Garate, etab., banan-banan erreparatu beharko lirateke. Independentistak eta hizkuntz erlatibistak Krutwig eta Txillardegí izan dira. Baina Txi-

llardegi, esate baterako, ikastolen mugimendua nahiz euskararen batasuna “politikarekin” nahastearen guztiz kontra egon da praktikan (ik. J. M. Torreal dai, “Batasunaren bidea urratzen. Txillardegiren eragintza praktikoa”, *Jakin* 204, 2014, 11-94). Euskara eta politika ez juntatzeko ardurarik handiena izaten zen eskuarki garai hartan. Ez Francoren gatik bakarrik. Euskaltzaleen artean, karlistak eta abertzaleak-eta, joera politiko diferenteak zeuden. Abertzaleen artean etenik zalapartatsuenak (EAJ-ETA) ordukoak dira, euskaltzaleen artean ere liskarrak eraginez (oroit Euskerazaintza). Politikarekin oso zuhur jokatu beharra zegoen, eta gehien-gehienek euskararen alorrean politikako liskarrak ekiditea bilatzen zuten. Euskararen borroka eta borroka politikoa bandera batean josi, “iraultzaile” berriek egin dute (oroit Haranburu Altuna/Aresti eta Mitxelenaren arteko ahakar garratza). Denetik egon da, esan gura dut, euskararen eta politikaren gorabeheretan. Ez gara pentsamendu bakarrekoak izan. Hizkuntz erlatibismoa deritzonaz bezainbatean, hori hipotesi linguistiko-filosofiko bat da, diskutigarria linguistika eta filosofia mailan; ez da politikoa, eta ez da diskutigarria politika sailean. (Ez al da komiko samarra Humboldt, Sapir, Wittgenstein edo estrukturalismo frantsesa euskal abertzaletasunaren alde teorizatzen imajinatzea?). Honekin ez da ukatzen momentu batean politikoki ere bizi probetxugarria gertatu dela hizkuntza eta mundu-ikuskeraren eskola (Darwinen eboluzio teoria ere bai!), inarrosaldi kultural orokor bat eragiten zuelako euskal mundutxoan, bai dogmatika “marxista” berrienetako batzuk eraisteko (oroit Txillardegiren-Ereño polemika), bai zenbait begikera tradizional kuttun ahantzarazteko. Hala, batetik, “baskismo” espainolizari buruz: “etxe” esan ala “casa” esan alderik ez dagoela ziotenen aurka, hizkuntzaren interpretazio instrumental soileko

kazeta-intelektualak; h. d., Baskonia euskaraz hitzun ala espainolez hitzuna Baskonia berdin-berdina litzatekeela. Bestetik, euskaltzaletasun tradizional bat gainditzen laguntzeko, sentimental edo behintzat oinarri teoriko aski argalekoa, hizkuntzaren ohiko estimazio “folkorikoan” sostengatzen zena (ez diot derrigor balio negatiboarekin). Hots, “Aitorren hizkuntza zaharra” edo “Espainiaren altxor kulturala” bezalako balorazioen aldean, hizkuntzan gizatasunaren ezaugarri esentziala erakutsiz, gizarte nazionalarentzat ere bera zela esentziala ikusarazten zuen. Euskararen aldeko borroka Euskadiren aldekoa dela, baina gizadiaren aldekoa ere bai.

Belaunaldi bakoitzak bere egoera deskubritzen du eta bere egoeratik begiratzen dio munduari. Berak jasotzen duen informazioa, irakurtzen duen literatura baliatzen du pentsamendua hornitzeko. Guretzat ez da beti samurra egungo gaiak eta arrazoibideak segitzea. XX. mendeko 60 edo 70eko hamarkadetatik hona testuingurua zeharo aldatu da, analisi moduak eta diskurtsoa markatzen duten hitzak ere bai. Proletarioak eta proletargoa berbak, adibidez, noiz entzun zenituzten azkeneko aldiz (bigarrena sartu ere ez da egin euskal hiztegietan)? Marxen klase kontzeptu gure garaian edonondua subalternitateak ordeztu du; iraultzaren subjektu klasiko ukabila legez itxi-itxia, agente berri diferenteenen ortzadarrera zabaldu da (generoa, ekologia, hemisferioko hegoaldea, askapen nazionalako mugimenduak); abangoardia leninista diziplinatuaren tokia hegemoniaren ideiak okupatu du.

(Ez dakit pentsamendu berria edo pentsamendu berriak esan beharko nukeen, oraindik sintesi bat lortu ez dutenak – eta bilatu ere beharbada ez dute bilatu behar. Esaterako, “euskaldunak desagertu behar du”, irakurtzen dut, eta une berean feministen jokabidea ikasi behar dugula. Desagerrara-

zi ez baina, feministek emakumea zopan ere presente egiten digutela esango nuke –eta eskertzen diegu euren borroka–, pertsonaren duintasun unibertsalean edo andre-gizon ororen berdintasun demokratikoan geratu gabe).

Haste batean ezin izan dut neure buruari ez galdetu, independentismo ez abertzalea, etab., zenbatean ez diren lipizta lexikalak. Hasieran nazionalistak omen ginen. Gero, nazionalismoa itsusia zela eta, abertzale bihurtu ginen (EAJ-PNV bera izena aldatzekotan ibili zen). Orain, abertzaletasuna ere aski polita ez eta, independentista ez-nazionalista, ez-abertzale izan behar omen da... Ez ote erosoago eskar-muxa terminologiko hauei bost axolaz aurre egitea? Bai, nazionalista, abertzale, independentista, separatista naiz – zeu bezalaxe!, zure DNI espainol horrekin munduan. Beti erretiradan, laster gure posizioarentzako kalifikatzailerik gabe gera gaitezke.

Prest nago, hala ere, onartzeko, mugimenduok ez direla belaunaldi aldaketaren axaleko sintoma soilak, terminologia edo kontzeptu berrien kontua, mundu berri batena baizik (hala ikusita, agoratik erretiratzea tokatuko litzaidake neuri). Sakonagoko egoera eta mentalitate iraultketaren seinaleak dira. ETaren zikloa amaiturik, orain politika demokratikoaren arauetara bigundu gura bada, ordezkaritza eta bozketaren sistemara batik bat, horren mekanikara makurtu beharra dago. Urrutiko helmuga izan liteke burujabetasuna, baina hartarako estreina tresnak behar dira; tresnak lortzeko (demokratikoak), bozak irabazi behar dituzu; bozak irabaztea izan beharko da jomuga hurbila, ordezkari ahalik gehienak sartzeko Udaletan, Diputazioan, Jaurlaritzan (erakundeok independentziarako bidean baliatzeko, suposatzen da); ahalik gehienei interesatuko zaien programa atonduko da; kan-

painetan adituen esanera jarri beharko da eta haien gomen-dioko diskurtsoa paratu; seguru asko ez da oso nazionalista izango (Aberri Egunetarako erresalbatuko da hori), eta diskurtso horretan euskara ez da aipatuko... “Elementary, my dear Watson”. Politika demokratikoak bere inperatibo kategorikoak ditu.

Ez da ezer berria. EAJ/PNVk beti hala jokatu duela esango nuke, eta Alderdiari ez zaio gaizki joan. Nola doakio independentziari? (Independentzia gura baldin bada, jakina – zenbait abertzalerentzat ere, dakusagunez, gaur ez baita independentismoaren ordua). Ezker abertzale iraultzaileak bere aldetik ezin izan zuen Urrezko Ahari-Larruaren Kolkidaraino arribatu (ispilukeria bat zen itsasmortuan), bigarren nabigazioari ekin bide dio, eta itsasoa lauso dago. Berlingo harresia erori zenetik, ezkerrean Iraultzaren abangoardia monoliti-koaren tokian subjektuen pluralismoa eta bakoitzaren autonomia bedeinkatzen da (euskararen borroka, independentismo iraultzailea, gatazka sindikalak, feminismoa, ekologia, AHTaren edo zaborraren gerrak, errauste-plantaren zaputza, etc.), herri borroka guztiok ortzadar batean biltzeko ideian. Asmoa ez da txarra apika. (Gizartea kolpe batetik irauli ezin denean, mihi-trumoiak apaldu eta kolpetxo-kolpetxoka aha-legindu daiteke). Baina, bat: mugimendu horiek denek euren egitasmoak eta jokamoldeak dituzte: horien suma edo ordezkaritza soila izatera mugatzen bada, bere-bere proiektu nagusi bat gabe gizartearentzat eta Euskadirentzat orokorra, ataza partzial horietan diluitua geratzen da ezkerra. Eta, bi: bozkatze sisteman, gutxiengo militanteon batuketak ez du gehiengo ematen, zentro sozial nabarra militanteongana erakartzen ez bada. Bozkatzailego zabala irabazteko EAJ/PNVren taktika arrakastatsurekin lehiazteko proposamena

al da “independentismo ez-abertzalearen” planteamendua?... Korapilo bat dago: gehiengo asetzeko eskaintzak gutxiengook asegabatu eta atsekabetuko ditu. Ezkerrak (Iraultzaren ideari erabat uko egin ez dionak, esan gura dut) ez dauka erraz European.

Beste korapilo bat: politika iraultzailea azken helburuak bero-bero premiaraztetik bizitzen da (eguneroko eginkizun hurbilak gutxiesteko arriskuarekin). Politika demokratikoa hotz-hotzean hurrengo lauzpabost urteak programatzera mugatzen da (urruneko helburuak ahazteko arriskuarekin).

Errealitatea, ez administratu soilik eta ez hankaz gora jarri (egunero Iraultza egiten: eta ehun urte horrela. Iraultza ez da goizero atarian ate joka gure zain egoten. Hartarako ezinbesteko baldintzak eta baliabideak urrundik ere sumatzen ez direnean gizartean eta munduan, Iraultzaren ideia Iraultzaren ideologia bihurtzen da eta beti-arrazoidunen opioa – diskurtso total ezlekuko, total antzu edo, okerrago, hoberenaren aitzakian hobeagoaren etsaia), ezpada egoera soziala aldaraziz joan gura baldin bada, eta hori demokratikoki egin, politiko militantearen ideien eta karrikako interesen konbinazio zaila behar da asmatu. Biharko helburuak eta gaurko zereginak. Politika zuhurra orekaren artea litzateke: batetik ideia eta interes aldarazleak jendartean sustatuz eta bultzatuz, bestetik jendearen oraingoxe interes eta desintere sei makurtuz eta erantzunez. Beharbada aurreko urteotan, kulturatik eta euskaltzaletasunetik gatozenok batik bat, ideien diskurtsoan gehiegi pentsatu dugu eta gutxiegi jendearen sakelako interesen politikan, kargu eta erantzukizun politikorik ukan ere ozta baitugu ukaiten ohi, ezta horietarako balio ere. Hala, gustatuko litzaiguke menturaz politiko abertzalearen diskurtsoa euskaltzalearena izatea, baina segu-

ruenik beti ez da zogia, biek itu berdintsuekin jardun arren. (Politikoaren praxiak izan behar luke euskaltzalea, zinez aberrri –nazio– zalea bada). Politikoak eremu eta maila ezberdinetan, jenderik diferenteentzat beretu behar du publikoki erantzukizuna. Euskaltzalea txantxangorri norbanako samarra da eta ez dago gaizki haren egitasmo teorikoa kontzesiorik gabe idealista izatea (adiera positiboan); politiko demokratikoaren programa nahiko materialista izatea komeni da (adiera negatiboan ere bai, aukeran), eta haren ofizioaren lasta dizu makina bat kontzesio egin beharra, idearioa kasik desfiguratzeraino akaso. Nik pentsa nezake Aristotelesek politikaren azken helburua gizartearen eta norbakoitzaren perfekzio espiritual eta zoriontasun amankomuna dela, baina hauteskundeetara ez naiz perfekzio espiritualaren eta bertute aristotelikoen programa batekin aurkeztuko. Ez jendeak zoriontasuna eta perfekzio espiritual gura ez duelako, baina bai ez duelako hori oraingoxe prioritate bezala sentitzen, edo momentuan prioritate bezala sentitzen duena berak ez duelako kategoria horietan interpretatzen. Politika abertzalean euskararen inportantzia beti presente egotea nahi genuke. Baina euskarak praktika politikoan izan behar du inportantea, ez dauka zergatik diskurtso politikoan inportantea izan. Euskaltzaleok euskaltzaletasun gehiegi eskatu ote diogu politika abertzaleari? Neuk ez dut inpresio hori, baina azkeneko denboran inpresioa egiten du batzuentzat interes teinka dagoela, konfliktoa dagoela esijentzia euskaltzaileen eta independentziarako estrategiaren artean. Estrategiaz ezer ez dakit. Estrategiak fronte guztien ezagutza zehatza galdatzen du (ez zait iruditzen “intelektuala” esaten dugun baten edo idazle baten egitekoa, ekipo politikoena baizik). Beharbada estrategia esaten denarekin taktika ulertu behar da, eta

batez ere diskurtsoa. Taktikak eta diskurtsoak bat bakarra eta bera izan behar al du Elantxoben eta Ablitasen? Euskaltzalearenak eta sindikalistarenak? Zenbait kasutan konfliktoa egon liteke. Baina konfliktoa “gainditu” ala konfliktoarekin eta diferentzietan bizitzen ikasi, zer bilatu behar dugu? Independentismoa euskaltzaletasunetik eta abertzaletasunetik aparte planteatu behar dela esaten bada, uste dut igar neza-keela nora destatzen duen tiroak. Baina egokia al da, modu horretan, formulazioa?

(Gure artean ez dut uste gogoratu beharra dagoenik, politika –borroka– ez dela instituzioetan bakarrik egiten. Inork pentsatzen al du 1979ko Estatutuaren eta Kontzetuaren kontzesioak Madrilen EAJ/PNV klandestinoaren indar itzelarentzako kezka bideengatik egin zirela? Eta orain ere, zerbait lortzen bada, Kataluniaren borrokagatik izango da, ez euskal politika dialogatu nahi ez duenarekin dialogatuzalegatik. Ahultasunetik diharduenaren politika abaguneak aprobeztatzea da. Baina mugonak sortaraztea da batez ere, abaguneak probokatzea).

Nola jokatu demokrazian burujabetasuna erdiesten joateko? Mezu abertzalea epeldu, jomuga hori gehiengo zabalagoari poliki-poliki gustagarri bihurtzarren? Alderantziz, nukleo autonomoak eta eraginkorrek sektoreka antolatu (osasunbidekoa, feminista, gazteriarena, etab.) eta koordinatu, bultzagile aritzeko eta gizartea esnaraziz joateko? Bietara jokatu?... Hutsune ikaragarria dago, dudarik gabe. Txillardegi, esate baterako, Alderdi abertzaleen batasuna aldezkatzera baino apenas pasa zen aurrerago (proposamen apur hori bera gehiegikeria zen ezkerzagoko zenbaitentzat). Orain, ezker abertzalearen partalegoak erakunde politikoetan, baina batez ere Katalunian eta Eskozian ikusitako mugimenduek, haus-

narketa berrietarako bultzada eman dute. Alderdiak berak asmoa lantzeari edo birlantzeari lotu zaizkio. Batez ere, ordea, Alderdien eginbideetatik landa jendarte zibilak politikoki egin lezakeenaz eta egin behar lukeenaz hainbat bururapen kaleratzen ari da. Independentziaren aldeko estrategian euskararen –arrazoi nazional edo identitarioen– tokiaren eztabaida pizberritu da. Eztabaida berria, nolabait, abertzaletasuna bezain zaharra da, izan (ik. A. Elorza, *Ideologías del nacionalismo vasco*, 1978). Nola lotu euskara eta politika, euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna? Beti egon dira abertzaletasunak euskaltzaleago izan behar zuela esijitzen zutenak, eta “pragmatikoago” jokatzea nahiago zutenak. Beti egon dira euskaltzaletasunak despolitizatu egin behar zuela esaten zutenak ere –beraiek ezer ez egiten jarraitzeko gehienetan. (Zerbait egiten zutenek egiten zutena politizatua omen zegoela, edo marxista zela, edo burgesa zela, aspaldiko aitzakia izan da beraiek ezer ez egiteko. Holakoen kontua beti izan da nik ezer ez egitea – eta zurea izatea errua). Gerra aurrean eta inguruan EAJren barrutian ematen ziren diferentziak (oroit Lizardi, Ibinagabeitia). Gero etena etorri da, eta (sinplifikatuz) EAJ epelkerian geratu dela eta euskaltzaletasun suharrena ETA/Ezker Abertzalean aurkitzen dela esan liteke. Orain, ordea, Ezker Abertzale gazteenaren baitan ematen da etena, eta euskara eta politikaren arazoa beste era batean kuestionatzen dela esango nuke. Independentzia zenbait jenderentzat bere betiko uste eta ibilmoldeen kontrarioegia ager litekeelako, edo heldulekurik gabeko ideia abstraktua irudi lezakeelako, edo batzuei lurrikararen beldurra ematen dielako, dena delako, nolana ere jomuga horretara abertzale tradizionalak baino jende gehiago erakartzeko asmoz, batzuen aburuan nazioa eta euskara, edo baita inde-

pendentzia eta nazionalismoa bateratzea ere laga eta, propaganda independentistan zergatiko ez-nazionalak lehenestea komeni da, hots, sozial eta ekonomikoak. Hau da, ez dakit neuk horrela formulatu izango nukeen, baina, zuzen ulertu badut, independentismo ez-abertzale eta, noski, ez-euskaltzale, soil ongizatezale moduko zerbait proposatzen da estrategia bezala.

Ematen du dilema baten aurrean geundekeela: ala idealaren politika ala interes materialen politika; independentismo politikoki abertzale/euskaltzalea, ala interes ekonomiko eta sozialen independentismo soziala, politikoki neutrala.

Aitortzen dut hau, strategiaren arazoa esaten dena, inplikazioen batzuk teorikoak izan ditzakeena bai, baina batez ere merchandising sarkorrenaren problema iruditzen ari zaidala (aldi eta toki bakoitzean egitea garrantzizkoa dena, noski: ez dut horren premia gutxiesten): itxuraz produktua badaukagu, kontua da nola paketatu eta hobeto saldu. Produktua independentismoa baldin bada, bezero berriak irabazte aldera motibazio ez espezifikoki nazionalak alegatzea (ekologikoak, feministak, etab.) neuri ez zait iruditzen xede nazionalaren edukiak zehaztuki espezifikatzea besterik: ez dugu Estatu espainoleko otseinak izan gura, Estatu feminista (ekologikoa...) gura dugulako. H. d., gobernu demokratikoa, ustelkeriarik espainolena gabeko administrazioa, Justizia bat ez dena haize-orratz jauntxo-feudal prepotentea (Botin/Atutxa, Alderdi politikoen legea), langileen auto edo kogestioa enpresan, kalitateko irakaskuntza eta osasunbidea, etab., gura dugulako gura dugu independentzia. Independentziaren alde arrazoiak mila daude espezifikoki “abertzaleak” ez direnak –independentziaren aurka intelektual eta kazetari madrildarren (edo euskotarren) eguneroko

prediku nekagarrietatik hasita. Motibo bakarrak euskaltza-
learen (edo aberri/nazio abstraktuaren) puru-puruak direla
uste duen euskaltzale edo abertzalerik ez dut uste dagoenik.
Independentzia gogoak oraintxe ere erraiak hainbat amorrur,
eta buru hainbat aburu eta itxaropenetakoak daude, eta edo-
zein independentismok behar luke argitu eta doitu ahal be-
re edukiak (politiko, sozial, kulturalak). Aldez bestera, gure
independentismoarentzat aberri/nazioaren oinarritzotasun
eta zentraltasuna baztertu badugu, zergatik mugatzen dugu
independentzia asmoa Euskadira? Zergatik ez baztertu Na-
farroako hegoa eta Jaka edo Santander aldean saiatu inde-
pendentziaren alde kanpaina egiten, edo Bearnon, Bordelen?
Sortzen zaizkidan galderak dira. Pentsatzekoa al da, aisiaren
kultura omen den honetan, ongizatea hobetzeko proposa-
menak jende asko erakarriko duela kausa politiko baten alde,
are independentismoaren alde aktiboki engaiatzera? Itxaron
liteke aipatu motiboek jendea, abertzaletzera motibatu ga-
be, motibatuko dutela independentziaren aldera, edo euskal-
tzaletu gabe abertzaletzera? (Independentismo ez abertzale
eta ez euskaltzalearen murmurra horrela ulertu behar bada
behintzat). Benetan uste da konfort gehiagoren agintzarie-
kin susper daitekeela zerbaiterako militantziarik? Ala mili-
tanteak beste ezpala batekoak izan dira beti? Edo militantzia-
ri agur esan behar ote zaio?... Hor dago gakoa: norako bi-
dean sartzen gara, zein dinamika eragiten da egiaz, berbalki
behintzat euskara eta abertzaletasuna bigarrentiartzen, atze-
narazten dituen diskurtsoarekin?

Salaminako deskalabruaren ondoren, Mardonio jeneral
persiarrak, Liga heleniarreko indar bateratuak banatzeko as-
moan, Atenasi bake eskaintza berarekin bakarrik egitea eskai-
ni zion, hainbat eratako abantaila politiko eta ekonomikoak

promestuz (Herodoto, VIII, 141 eta hurr.). Gerra, izan ere, kalte handiak ari zitzaion eragiten Atenasi. Tentazioa barrandaturik, espartarrak arranguratsu ziren, promesa haien bistan atenastarrek ez ote zuten barbaroarekin tratua lotuko eta “Heladeren kontrako atentatua” egin. Mandatariak igorri zituztelarik, bada, Atenasera, haien asmoen berri galdezka, erantzun hau jaso zuten: “Erabat gizalegezkoa zen gu Barbaroarekin akordioaren batera hel gintezen beldur izatea lazedemondarrok; baina horregatik izutzeari, atenastarren pentsaera ezagutzen duzuen moduan ezagututa, lotsagarria deritzogu benetan ere, ezen ez baita lur osoan nahikoa urrerik, ezta lurralde apart, eder eta emankorrik ere, mediarren kausa besarkatzera eta Helade esklabotzera makur gaitetzen horien truke (...) Jakin ezazue, bada –aldeztatik jakin ez baldin baduzue–, atenastar bat bera bizirik geratzen den artean ez dugula inoiz itunik egingen Xerxesekin” (VIII, 144).

Epika heroikoaren tonua utzirik: independentzia nahi omen dugunean, probintzia ekonomiko abantailatsu bat da nahi duguna, hizkuntza eta naziotasun ezberdinetako “nazioen nazio”txoa (Suitza eusko-franko-espainol bat), ala nazioaren askatasuna eta berregintza eta batasuna, hots, nazio bakarra (euskal nazioa), zenbait sakrifizioarekin izanda ere? Independentzia gura duenak –berdin da zein arrazoigatik– ez al da bere eta beretzako aberri bat gura duena? Ala bere aberria izango ez den Estatu bat? (Euskadi bere Estatu, baina Arkadia bere ametsetako aberria: alegia, Madril betiere). Independentismoaren ideian Estatuaren eta aberri/nazioaren ideiek aparte egon behar badute, Estatuak ala aberriak izan behar du lehentasuna?... Ala ez dago dilemarik, ez dago bietako baten lehentasunik esparru guztietan zergatik finkatu, eta praktikan motibo suerte guztiak lotuz jokatzea kome-

niko da, unean uneko egokieraren arabera, eskukotasunera bidean bezala burujabetasunean?... Abertzale ez den jendea ere independentismoarentzat irabazteko interesa guztiz legitimoa bada, eta bada, nola aurkitu formulazio egokia interes horri, burujabetasunaren (Estatuaren) interesek eta aberriaren, esate baterako euskararen interesek bata bestea bazterrazazi gabe?

Aro bakoitzak bere arazoak dauzka, eta aro berri honetan gogoeta berria egitea zuei dagokizue. Horretan jarduteko agora zabaltzen dizue UEU eta Jakinen ikastaro honek.

Zilegi bekit agora horren zeregin bat ardurazkoa enfatizatzea, bai Jakinen eta bai UEUren sorrerako motibo nagusietakoa izan baitzen. Gure asmo politikoen jomuga burujabetasuna bada, hori ez da berehalako batean lortuko, eta bitartean egunotan jorratuko dituzuenon gisako arazoak pentsatu eta birpentsatu beharko dira. Horretarako landu beharra dago geure-geure pentsamendua, geure pentsaera (ez “pentsamendu bakarra”). Iragan intelektual pobretik gatzoz. Txikiak gara eta beti txikiak izango gara. Orduan, Madril eta Parisen sukurtsal politikoak izan gura ez badugu, ezin gara sukurtsalista mentalak izan. Gure arazoak geuk geure erara gogoetatu ahal izateko, alabaina, independentzia intelektuala lortuz joatea dugu lehenengoa. Estreina geuk geure buruan sinesteko. Jakiteko badaukagula geure pentsamendu bat, eta hori ez dela Barandiaranen elezaharretan eta Mariren mitoan hasi eta bukatzen. Eta gero, askatasuna beti kontzientziaren askapenetik hasten delako. Kontzientziaren askapena, berriz, ikasiz eta ikasiz burutzen da. Mundua geure esperientziaren begiekin ikusten ikasiz, eta arazoak geure buruekin pentsatuz, ez nondibait inposatu zitzaizkigun eskemekin eta doktrinekin. Ikasten duguna, geure herriarentzat ikasi beharko

dugu (ez akademiarentzat soilik); pentsatzen duguna, geure jendearentzat pentsatu, ez itzulpenarentzat. Ez pentsatu esportaziorako pentsatzen edo idazten dugula. Ez gara irla bat eta ez dugu izan nahi. Ezin dugu orga-barrikadako defentsa posturan jarraitu, “laager” mentalitatean kiribilduta (“Wagenburg”), arbaso karlisten eran. Baina Madril edo Parisko maisuen lezio eta kritikoen onespentetik zintzilik ere ezin gara bizi, biziko bagara. Geure-geure mundu bat behar dugu geu izateko.

NAZIOA ESTATU BILA (ESTATU TRESNAK)

Berez, independentziaren ideia beste Europa baten ideia baino ez da. Gomutatu beharrik ez dago, hasi Erdi Aro berantean eta humanismoan, eta Monarkia/Estatu eta Estatu/Nazioetan barrena, Europa honetako frontera nola finkatu diren odolez eta krudelkeriaz eta herrien bortxaketaz. Aro horren eta frontera horien “arrazoizkotasun” historikoa amaitutzat eman liteke gaurko Europan. Arrazoizkoa honezkeroko herriek eta jendeek euren tokia mapa horretan beraiek beste modu batera erabakitzea da. Beraz, kontrarioa uste izaten bada ere, eta horrela esanda paradoxala emango badu ere, independentziaren ideia nazionalismoen azkenaren ideia da.

Orain diferentzia nazional gisa euskaltasuna edo identitate linguistikoa alegatzea –etnizitatea, esaten da–, diferentzia txikien narzismo bezala ridikulizatzen dizute batzuek; beste zenbaitentzat, independentzia planteatzeko orduan ez da oportunoa. Ez nago seguru zuzen ulertzen ote dudana. Edo hobeto: ulertzen dut ez dugula eskatzen geuretzat beste edozeinentzat eskatzen ez dugun ezer; beste edozein herrirekin berdintasuna errebindikatzen dugula. Hala ere, diferentzia txikien inportantzia handia gutxiesteak mesfidarik

handiena sortzen dit neuri. Panikoa ere. Bakoitza bere historiaren haurrak gara denok (edo bere historiaren aurkako). Ez al litzateke egokiago diferentzia errebindikatu ez errebindikatu berdintasuna? Nazioarekin hala egiten saiatzen naiz neu (eta berdin egingo nuke feminitatearekin, homosexualitatearekin, etab.). Ezberdinen berdintasuna alegia.

Independentismorako arrazoi serioak behar badira, Espainiari eta Frantziarik lotuak jarraitzeko ez dira arrazoi serioak behar? Hitz batzuk ikara-eragingarriak dira nolabait: justifikazioa eskatzen dute (kontrarioak ez bezala), inork ez daki zergatik. Euskal Herriaren independentzia ez litzateke besterik, gaur Madrilek eta Parisek dituzten gobernamentu tresna berak edukitzea baino (Estatu tresnak), eta beregainki erabili ahal izatea, berari doazkion kapituluetan: burujabetasuna legegintzan eta ordena publikoan, menpegabetasuna Justizian, erabakimen osoa ogasunean zein ekonomian, hezkuntza eta osasun antolaketan erantzukizun propioa, etab. Birantolaketa normal bat (Europaren barruan), aldeei doazkien arazoetan horiei komeni zaizkien hitzarmenak kontzertatuz. Espainiako eskualdeetako jendearekin harremanak (nahi) dituzten familientzat inolako ondorio dramatikorik gabe, batez ere frontera tradizionalak engoiti zentzurik ez dutela egiaz sinesten bada. (Ikustea dago Belgika eta Herbehereen edo Belgika eta Alemaniaren arteko frontierak zer inolako “mugak” diren joan-etorri familiar edo laboraletarako – hizkuntzak bai, mugak dira).

Independentzia, askatasunaren antzera, praktikatzeko dena dago, eta ez dago besterik. Praktikan, independentziak mailak eta moduak dauzka. Independentzia herri/nazio baten erabakitzeko ahal bermatua da (ez eskubidea soil), ez da besterik. Herriak erabaki lezake independenteki, hots, berak

bere gogara erabakitzen duela, inork inposatzen ez dion formula batean, beste herri batzuekin (kon)federatu eta haiekin Estatu berean elkar hartzea. Posibilitate bat da, teorian.

(Edo teoriaren teorian. Zeren eta, praktikan, inposibilitate bat iruditzen zait gehiago, Espainian –ez Konstituzioan bakarrik, eta ez orain bakarrik– politikan aspalditik kotsakratua dagoen nagusikeriaren (dialogo espainolak à la Ibarretxe) eta zentralismoaren tradizioarekin, eta oro har kulturen batasun eta berdintasunaren kontzeptu katoliko-kartesian-jakobinoarekin; ik. *Espainolak eta euskaldunak*, “Batasunaren kontzeptu mito-patologiko bat” ataltzua – itzulpen espainolean baztertu egin zena! Federazioak diferentziaren bestelakoxe begirune bat eta kide bakoitzaren eskukotasun osoaren aitortza esijitzen du aurretik egiazkoa izateko).

Estatu propio berezia Euskal Herriarentzat irtenbide politiko posibleetako bat da. Ez da aukera posible bakarra, batzuentzat ez da xede errealista, eta sutsuki horren aurka ere hainbat jende “ez-nazionalista” dago, batez ere bere jakinduria eta zuhurtzia kazetetan publikatzen duena. Estatuaren edo independentismoaren aurka, lehenbiziko, Estatu gaituta omen dagoelako gaurko progresiaren fede artikulua dago – errezatzen dena, baina ez sinetsi. Eta egia da, Estatu klasikoaren egitekoak (XIX. mendekoa esan ohi duguna) hauek ziren: bakoitzak bere merkatu nazionala babestea eta arautzea (protektionismoa), hori hedatzea espantio territorialez (lehiakideekin gerra) edo kolonialismoz, nazioarteko sisteman hegemoniala izatea edo aliantza hegemonikoan partaidetza ziurtatzea, harrokeria nazionala mitologizatzea eta hiritarrak mito nazionalen doktrinatzeko, etab. Nazionalista estriktoa Estatu hori izan da. Nazionalismo ho-

ri bai –espainola, esaterako–, mugatik hara bidaiatu orduko sendatzen zen. Pio Baroja nazionalismo espainol à la Avirana naibo batekin Pariseratu bada (“el Baroja cien por cien español está aquí”, haizepuzten da Pio Caro Baroja), berehalaxe sendatu da. Estatu hori ez da gezurra gainditutzat eman genezakeela. Ikusi, hala ere, oraindik begiekin ikusten dena, Estatuaren eraldaketa da, gaindipena gabe. (Estatuaren ardura printzipala gaur ere, ez muga eta erreteriek, baina ekonomia nazionala babestea da, etab.). Are, Europa egiazki Batua lortzeko eragozpen handiena egungo Estatuan “ez-nazionalismoa” da. Hala eta guztiz ere, Estatuok, elkarri kontrajarriak egotetik elkarrekin lotu dira, eta banakako Estatuetan baino erabakiorikiago gaur egun Estatuaren arteko erakundeetan ikusten dugu itxuratua mundua politiko eta militarki (NATO, NBE, Europar Batasuna) eta multinazionalen arabera barreiatua ekonomikoki. Independentzia gura duenak, mundu berri horretan gura beharko du bere in(ter)dependentzia. Diskurtso publikoan, aldiz, mezu dominantea “mundu guztiaren” batasunarena da, elkartasunarena. Norbere kontzientzian eleketa hori guztia Estatu zahar eraldatuaren eta multinazional berrien interesen mozorroa baino ez dela igarrita ere, zaila egingo zaio edonori sasi-ideologia horren dominaziotik jare gelditzea. Nazionalista izatea ez dago ondo ikusia, ez da erraza.

Bestalde, kulturatik edo euskaltzaletasunetik politikaratu denari, beti esan dut, Estatuaren zentzua falta ohi zaio. Interesatu, berari ideia politikoak interesatzen zaizkio, Estatuaren eta politika instituzionaleko errutina ez zaio interesatzen. Estatuok hor daude, historiak horrelaxe ipini ditu; ez gure nahierara, baina hor konpon. Egin dezagun guk geure lana. Orain Espainia eta Frantzia kanbiatzen hastea mundua

endredatzen ibiltzea da, ez du merezi; edo euskaldun apurro horretan alferrik hastea behintzat ez du merezi. Orain arte iraun ahal izan badugu, jarraituko dugu nolabait irauten. Frankismo “apolitiko” garaiko haurtzaro tradizional batetik (ez abertzaleatik) datorrenari bederen, independentismoa lehen ikusi batean ezlekukoa iruditzen zaio European, edo ezgaraikoa, interesik gabekoa nolana ere, eta, azken batean, nolabait arrotza gaurko mundu globalizatuan. Gaztetan hori. Munduko haurra sentitzen da, edo sentitu nahi luke, Eliza unibertsaleko haur izan eta gero (nire belaundian denok izan garen bezala).

Ez gara biziki nazionalistak sentitzen. Aitzitik, nazionalistak garen momentuetan ere antinazionalistak sentitzen gara modu askotan, gustatzen ez zitzaizkigun nazionalismoak nahikoa ezagutu baititugu, gure etxekoa baino higitzez buruirritziagoak, Espainian, Italian, Frantzia, Alemanian. Kuriosoki, Italian esaten dute nazionalistak frantsesak direla, beraiek ez; frantsesek pentsatzen dute, nazionalista-nazionalistak izan, alemanak direla, beraiek ez; alemanek ez dute uste gaur egun beraiek nazionalistak direnik, eta izan ere seguru asko frantsesak edo italiarrak baino gutxiago dira, baina ez gutxi.

Gero esperientziak Boterearen, h. d., Estatuaren eguneroko-eguneroko hurbiltasun ikaragarria gure barrueneraino ikasaraziko dio; Espainia eta Frantziarena gure kasuan. Estatuaren gure kontzientzietan landatze eta omnipresente ezkutu bilakatzeko hori Ane Larrinagak bikain azaldu digu. Hona pasarte batzuk:

“(…) Ahaztu egiten da estatu orok birsortu beharra duela irauteko, eta birsortze hori egitura objektiboetan nahiz subjektiboetan gauzatu behar dela, hau da, egitura

instituzionaletan eta gizabanakoen kontzientzietan. Hain zuzen ere, azken birsortze horretarako estatuak eta haren inguruko erakundeek etengabeko funtzio ideologikoa eta sinboliko-kulturala bete behar dute, herritarren mundua errealitate sozialari buruzko sineste, irudikapen eta praktika sozial jakinez osatzeko. Modu horretan, nazio-estatuak gizabanakoen eguneroko munduan txertaturik dagoen errealitate eztabaidaekin bihurtu da, oharkabeko nonahikotasuna hartu duena gaur egungo estatu-gizarteetan. Nazio-estatuak sorturiko ordena horrek ez du eguneroko plebisiziturik jasotzen. Aitzitik, borondatezko leialtasun kontzienteen ordeztasun sistemikoen indarra ezartzen da egunerokotasunean. Eta ohiko jardunen bitartez, herritarrak nazio-estatuako kide gisa sortzen eta birsortzen dira behartze-sentimendu barik, bai ikuspegi kulturaletik bai identitate-ikuspegitik.

Ildo horretatik, estatuak sortutako nazio-identitatea ezin da ulertu –gaur egungo hainbat testutan egiten den bezala– gizabanakoaren barne-egoeraren edo «ni»aren isla huts modura. Alderdi psikologikoa ukatu gabe ere, identitateek gizarteetan eta historian kokatuta dauden bizimodu kolektibo jakinetan daukate beren euskarria. Beste modu batera esanda, nazio-identitateek –bestelako talde-identitateen antzera– kategoria eta irudikapen kolektiboak hartzen dituzte barnean, baita ohitura eta praktika sozialak ere. Nazio-identitatea munduan egoteko eta mundua ulertzeko eta hautemateko modu jakin bat da; aldi berean, mundu hori birsortzeko eta «natural» itxurarekin aurkeztu ahal izateko balio duena. Bizimodu izatean eta eguneroko esperientzia sozialetan erroturik egotean, bizipena hain egiten da ezaguna eta hurbilekoa non berezkozat jotzen den.

Hala, errealitate sozialari buruzko –besteak beste, nazioari buruzko– pentsamendu- eta hautemate-kategoriak gizabanakoen esperientzia praktikoa eta bizipenen bitartez birsortzen dira haien baitan, zeren estatuak bultzaturiko

egitura kognitiboak eta sinbolikoak eguneroko praktika sozialetan txertaturik baitaude: eskola-ohituretan, etengabe gauzatu behar diren era guztietako praktika burokratikoetan, kontsumo mediatikoetan, kirol- eta kultura-jardueretan, hizkuntza-erabileretan, eta abar. Hitz egitean, eskolaratzean, administrazioekin harremanetan jartzean, telebista ikustean, kirol-ikusketan parte hartzean, ezkontzean, automobila matrikulatzean, osasun-zentrora joatean edo, besterik gabe hiri-paisaia ikustean (eraikin ofizialak, banderak, kale-izenak, hizkuntza jakin batean idatziriko errotuluak...), estatu-gizarteko herritarrek identitate-marko nahiz mundu-ikusmolde jakin batzuk inskribaturik dauzkaten egitura kognitiboek itsatsitako praktika arruntak gauzatzen dituzte beren eguneroko bizitzan eta, hartara, egitura horiek bereganatzen dituzte modu naturalizatuan. Horrela birsortzen da nazio-estatuaren ordena sinbolikoa” (“Kultura Estatu-erakuntzan: Estatu proiektu sinboliko gisa”).

Honek, Estatuaren kritika bezala adina, Estatuaren gure beharra erakusteko balio dezake (euskal kulturarena, esate baterako). Hor ere anbigutasun batean bakarrik da posible hauturik egitea. Estatu, uste dut, ez da maita genezakeen ezer (horregatik adornatu ohi da ideologia eta mito azpian estaltzeraino); behar duguna da.

Hautua pragmatiko hutsa da (izan behar luke). Eta kuestioa, posible al den eta nola. Ez dago independentzia zergatik idealizatu, ez euskal Estatuaren ideia zergatik demonizatu. Arrazoizkoa da? (Kontrarioa baino gehiago, alegia? Konklusio politikoak ez baitira silogistikoak edo matematikoak izaten). Betiere gure –euskaldunaren eta bereziki euskaltzalearen– ikuspuntutik eta gure belaunaldiaren esperientziatik abiatuta: Francoren azpian, Espainia ukoa edo oztopoa zen “euskal”

izendaturiko edozerentzat. Itxaropena, orduan, espainolekin elkar ulertzea demokraziarekin posible izanzen zela. Demokrazia noizbait etorri bada, eskuinaren esperientziak irakatsi digu berriro oztupoak besterik ez zegoela. Ezkerrarekin hobeto izango zen itxaropena geratzen zen. Berrogei urtean ezagutu ditugun eskuin zein ezker demokratikoen aldiak oztupo lasterketako maratoiak izan dira denak Euskal Herriarentzat. Atzerago begira hasi eta, Errepublika, Primo de Riveraren diktadura, etab., karlistadetaraino eta harago, azkeneko berehun urteak elkar ulertu ezinaren historia dira. Odoltsua eta krudela zenbaitetan, etengabeko sokatirakoa bestetan. Baina soka beti eurena zela. Nahi zutenean laxa, nahi zutenean estutu, edo nahi zutenean soka gorde eta jokoa zapuztu egiten zutela. Inoiz ez gara izan bi lehiakide edo solaskide osoak eta berdinak. Arazoaren gakoa hor dago. Hain egunerokoak eta hain errepikatuak ditugu komeriok, ezen-eta ahaztu egiten baitzaizkigu pasa eta berehalaxe. Gazteren batek, beste nola dibertitu ez badaki, Trantsizio famatuaz geroko kalapiten errepaso bat egin lezake denbora-pasa: Estatutuaren inguruko tirabirak, zer kosta izan den bete dena betetzea eta oraindik bete gabekoa, Konbenioan nahiz Kontzertuan behin eta berriro piztu eskatimak, Alderdi politiko eta komunikabideen itxierak (*Egin, Egin Irratia, Ardi Beltza, Egunkaria*), Trebiñuko arazo demokrazian soluzio demokratikorik gabekoa, ikurrinaren eta bandera espainolaren gerrillak, unibertsitatean, eskolan, lan araudian etengabe errepikatzen ari diren lipiztak, azpijokoak sindikatuen aldera, edo Ertzaintzaren izaera dela, ETAREN amaiera eta preso politikoen askapenaren inguruan, Urquijo eta beste Gobernadore kolonialen zipozkeriak...

Egia da teoriaren teorian Espainia bat edo Frantzia bat imajinatzea posible dela euskal naziotxoak babesteko eta in-

dartzeko guztiz arduratuak, eta Euskal Herriak, Ipar eta Hegotan, Erkidego eta Nafarroatan laurkiturik ere gaur bezalaxe, bake-bakean eta prosperitatean etorkizunik ederrena izan lezakeela, diskurtso politiko “zentsudunenak” hola moduzko suposizioarekin operatu ohi duela ematen baitu. Horrelako zerbait itxaron izan baitugu beti. Teoriako txori-ametsak! Itxaropen onberak laga eta ilusiorik gabe pentsatzen hasita, denak hori pentsarazten baitu, eta bestela pentsatzeko biderik ezerk ez baitu ematen, Madrilén eta Parisen menpean iragana legetxe etorkizuna ere sekula sekulorun etengabeko sokatira izango da, beraiek ematen edo ukatzen duten sokarekin, eta beraiek diktatzen dituzten arauekin eta beraiek izendatzen duten arbitroarekin. Hots, Boterea han dagoela, eta Euskal Herrian gehienez ere kontzesio batzuk.

Jakobinismorik erradikalenaren alboan beti eman den eta Alderdi berriekin orain berriro ikusten den “borondate on” edo liberaltasun (batzuetan intelektual, besteetan moral, inoiz politiko) horren diskurtsoa nekagarriro berdina da funtsean, bariante oso txikiekin. Francoren eta Fraga Iribarrenen egunetatik ezagutzen dugu guk. Eskuetan besterik ez eta hala suertaturik, *Historia de Ibiza*, Isidoro Macabich presbiteroaren lau bolumen ederrak irakurri ditut berriki, frankismoaren garaian eta espirituan idatziak. Jainkoaren hurrengo, presbiteroak ezer ez du munduan kuttunago bere Eivissa baino. Edo, bai: Espainiaren batasun santua – “el alto sentido y el deber inexcusable de un espíritu de Unidad, sincero, abnegado, absoluto, en todas las manifestaciones de nuestra vida española”, etab. Jarraian betiko aitortza ezin da falta (1963an idatzia): “Sin que esto excluya, entre las aspiraciones regionales que quepan en la legislación del Estado (!), la pública expresión escrita en todas las lenguas de España” (*Obra lite-*

varia, 1970, 224). “Konstituzioan kabitzen bada”, esaten da orain. Regionalismo sanoa ondo dago (falangista guztiak dira regionalista sanoak); nazionalismoa arras gaizki – espainola ez bada (orduan ez da nazionalismoa). Federalismoa, berriz, harekin azken orduko estualdian bakarrik akordatu eta problema guztientzat PSOEk airatu duen soluzioa, Kataluniako mugimendu independentista hankatrabatzea baino beste xederik ez duen *hocus pocus* nabarmenegia da.

Hainbeste urte daramagu borondate onezko (nahiz gaiztozko) diskurtso modu kontziliante, sasiliberalaren barianteen curia teilatuan entzuten, liberaltasunaren eguna gero inoiz argitu gabe...

Independentismoa beste itxaropenik geratzen ez deneko itxaropena da, azkeneko soluzioa eta esperantza. Menturaz Euskal Herriarentzat ez dago salbaziorik –unibertsoan deus ez da eternala–; baina, egotekotan, independentzia da. Frantzia eta Espainiaren artean komunitate txiki diferentziatu batek biziraungo badu, separatismoa da salbabidea. Bestela, Estaturik gabeko beste nazio guztien bidetik joango da an-deatzen, desegiten, desagertzen.

Burujabetasuna konkretuki zer-nolakoxea izan, beste afera bat da. Harreman internazionalerantz jositako mundu batean gaudena, denok dakigu. Separatismoa ez da harremanik ez edukitzea, burujabetasuna baizik. Harremanak berdinki burujabeen artean hitzarturikoak izatea, dialogoan bakoitzak bere leku propiotik jardunez. Ez-dependentsia Parisek eta Madrilek gure zeregin guzti-guztietan interbenitu behar horretatik. Ez-dependentsia Espainiako Justizia zikin politikerotik, Torturaren Barne Ministeriotik. Ez-dependentsia gure lana, ekonomia, hezkuntza, osasunbidea erabakitzeko.

Ez diezagutela beti Madrilgo gobernariak esan zer den ho-berena guretzat, zer nahi izan behar dugun. Ez diezagutela Madrilgo kazetariak irakatsi nola izan behar dugun zoriontsu, haiek zoriontsu izateko. Erantzukizuna geurea izatea, besterik ez. Ez-dependentsia.

Eta gero, zertarakoxe independentzia? Kontua da zer nahi dugun. Independentzia nahi dugun, besterik gabe, ala independentzia bera helburu batzuetarako tresna gisa pentsatzen dugun. Independentista izateko arrazoiak bistan da ez direla identitario hutsak. Beharbada berak horrelaxe formulatzen ez badu ere, bakoitza bere modura heldu da aber-tzaletasunera (kezka politiko edo ekonomikoetatik, sozia-letatik, linguistiko edo literarioetatik, dantzazaletasunetik, ekologiatik), suposatzekoa da bakoitzak bere eremuko es-perimentzietatik daukala motibazio independentista: adieraz-ten askatasuna, justizia soziala (eta Justizia independentea!), hezkuntza sistema autonomoa, osakidetza moderno bat, etab. Eta bistan da oraingoxe politikaren orduan ere Alder-di independentistek, politika egin gura badute, interes ere-mu diferente guztiok banderatzat hartu eta ageriki branditu behar lituzketela.

Hirugarren, eta azkenik: nola lortzen da hori? Helbu-ruak ez dira nahikoa, helbideak behar dira. That is the ques-tion. Euskal Herri banatu hau ez da subjektu politiko bat. Diputazioak, Nafarroako Foru Komunitatea, Eusko Jaurla-ritza eta Erkidegoko Legebiltzarra, Iparraldean ez dakit zein erakunde (Euskal Elkargoa, azken momentuko berria), sub-jektutxo sakabanatuak dira. Nola osatu helburu nazionaleko subjektu politiko elkartu bat? Nola bihurtu jendarte zibila eragile politiko? Nola sinergizatu erakundeen eta andre-gi-

zonarte zibilaren egikerak?... Arazoa hor dago, eta hor, tamalez, Herodotok ez digu ezer laguntzen.

Iruñean, Katakarak liburu-dendan, 2015eko ekainak 25.
Jakin-UEUk antolaturiko “Euskara, estatugintza eta naziogintzaren erdian” ikastaroko sarrera-hitzaldia

AURKIBIDEA

I. NAZIOAREN KONTZEPTU KLASIKOAZ	7
Herodotorekin hasteko.....	14
Nazio klasikoa zertan datzan.....	18
Nazioa beti plurala da eta bilakaeran dago.....	28
II. NOLA PENTSATU GAUR EUSKAL NAZIOA.....	33
Nazioa, erresuma, eta dialogo inposibleak.....	37
Nazioa ez da komunitate politikoa	44
Zeri leritzoke gaur komunitate naturala	49
Zerk egiten gaitu euskaldun?	59
Identitatearen inguruan	67
Kaskanteko euskal herritarraz	79
III. EUSKAL NAZIOAREN ETORKIZUNAZ	87
Politikan, politikan bezala.....	91
Nazioa Estatu bila (Estatu tresnak)	107